

# Real Academia Española-ren gutunaren polemika Euskal Herrian: euskara, ofizialtasuna eta hezkuntza 1916. urtean

Jurgi Kintana Goiriena eta Karmele Artetxe Sanchez\*

UEUKidea eta Historian doktorea, \*UEUKidea eta UPV/EHUko irakaslea

1916. urtean Real Academia Españolak, bere zuzendari Antonio Mauraren eskutik, gutun adierazgarri bat plazaratu zuen. Gutun horren oihartzunak Euskal Herrira ere iritsi ziren, Bizkaiko gobernadore zibilak gaztelania erabiltzeko agindua eman baitzuen ekintza ofizial orotan. Horren haritik prentsan polemika bizia piztu zen. Polemika hori argigarria da oso euskararen eta gaztelaniaren garai hartako egoera ofiziala, soziala eta ideologikoa nolakoak ziren ikusteko.

GAKO-HITZAK: Euskara · Gaztelania · Katalana · Ofizialtasuna · Hezkuntza · Real Academia Española · Gobernadore zibila · Espainiar nazionalismoa · EAJ · Bizkaia · XX. mende hasiera

## The Controversy of the Letter of the Royal Spanish Academy in the Basque Country: Basque Language, Official Status and Education in 1916

In 1916 a controversy erupted following the publication of a letter from the Royal Spanish Academy (signed by its director Antonio Maura). That letter was echoed by a rule of the civil governor of Biscay in which he ordered using the Spanish language in all official events in the Basque-speaking villages. The historiography barely mentions these facts. But it is a very illuminating controversy to know the official, social and ideological situation of both Basque and Spanish languages in the early twentieth century.

KEYWORDS: Basque language · Spanish language · Catalan language · Official Status · Education · Royal Spanish Academy · Civil Governor · Spanish nationalism · Basque Nationalist Party (EAJ-PNV) · Biscay · Early twentieth century.

*Jasotze-data: 2013-05-16. Onartze-data: 2013-06-04.*

## Sarrera<sup>1</sup>

Euskararen inguruko historiografian, XX. mende hasierari dagokionez, badira entzute handia lortu duten zenbait gertakari. Horrela, ezaguna da oso Miguel Unamunoren 1901. urteko hitzaldia, euskara ehortzi beharra aldarrikatzen zuen hura, eta asko izan dira gai hori aipatu edo iruzkindu duten lanak<sup>2</sup>. Garai bereko beste jazoera batzuek, aldiz, ez dute hainbesteko oihartzunik izan. Horixe gertatzen da Real Academia Española (RAE) delakoaren 1916. urteko gutunarekin. Berez oso gutun esanguratsua da, bere momentuan Euskal Herrian ere eragina izan zuena. Prentsan eztabaidak ere piztu ziren, eta eztabaida haiek azalera atera zituzten euskararen inguruko zenbait iritzi eta errealtate, normalean ezkutuan geratzen zirenak. Horregatik euskararen historia soziala, ideologikoa eta instituzionala ezagutzeko oso gertaera interesgarria da. Hala ere, bere unea igarotakoan polemika hura itzali egin zen, gerora guztiz ahantzita geratu arte. Eta gaur egun ia inork ez du ezagutzen.

RAE afera, bestalde, Euskal Herria baino testuinguru zabalagoan kokatzen zen. Auziak espainiar estatuko hizkuntza guztiak ukitzen zituen, RAEren gutunak mintzairaren arteko harreman jakin bat defendatzen baitzuen, batez ere hezkuntzari eta erabilera ofizialei zegokionez. Alde horretatik gaiak Katalunian izan zuen eraginik handiena, eta gerora bertako historialariak izan dira auziaren inguruko ikerketa zehatzenak egin dituztenak, betiere katalan kasua aztertuz<sup>3</sup>. Polemikaren oihartzunak, nolana ere, beste lurralde batzuetara ere iritsi ziren. Galizian, esate baterako, RAEren gutunak izan zuen islaren bat mende hasieran, baina horretaz pasadako aipu labur bat baino ez dugu aurkitu (cf. Vázquez Souza, 1997: 29). Auzi honen inguruko erreferentzien falta harrigarriagoa da espainiar nazionalismoari lotutako ikerketetan: guk dakigula inork ez du gaia perspektiba horretatik landu, nahiz afera hau, «periferia» ezagutzeko ez ezik, «zentroa» ezagutzeko ere arras interesgarria den. Izan ere, polemikak esplizitu bihurtu zuen hizkuntzen kontua eta argi adierazi zuen zein zen gaztelaniari eman nahi zitzaion tokia espainiar proiektu nazional-estatalean.

Euskal Herrira etorrita, RAEren gutuna ukitu duten hiru lan baino ez ditugu aurkitu. Lehen biek oso labur eta azaletik jorratzen dute gaia, azkenak luzexeago baina auzian behar bezala sakondu gabe. Lehena Joan Mari Torrealdairen *Liburu beltza* da. Bertan RAEren gutunaren zati bat jasotzen da (cf. Torrealdai, 1998: 61-62). Torrealdairen liburua testu-antologia bat denez, gutuna azalpen gehigarririk gabe agertzen da. Izatez afera honi lotuta dauden zenbait testu osagarri,

---

1. Karmele Artetxe ikerketa-talde honetako partaide da: *Grupo de investigación del sistema universitario vasco de historia social y política del País Vasco contemporáneo* (IT-708-13). Halaber Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren ondoko ikerketa-proiektuan parte hartzen du: *El proceso de nacionalización española en el País Vasco contemporáneo (1808-1980): Giro local y conflicto nacional* (HAR2011-30399).

2. Unamunoren 1901eko hitzaldiaz arduratu diren lan ugarien artean, aipa litezke, zerrenda osoa izan gabe, Mitxelena (1958), Ugalde (1979), Lapeskera (1996: 28-35), Erize (1997: 407-408), Aizpuru (2000: 92-95), Zalbide (2003: 15-28), Agirreazkuenaga (2003a: 155-156), Narbaiza (2004: 40-43) eta Zuberogoitia & Zuberogoitia (2008: 39).

3. Cf. Ferrer i Gironès (1985: 111-112); Grau (2004: 280-292) eta Yeste (2011: 47-54) (oharra: Grauren lana liburu gisa ere argitaratuta dago (2006), baina guk tesi-bertsioan (2004) kontsultatu dugu).

zuzenean dagozkionak Euskal Herriari, ez dira Torrealdairen liburuan ageri, nahiz beren eduki polemikoagatik jasotzea mereziko luketen.

Bigarren erreferentzia Ramon Lapeskerak eskaintzen du nafar prentsari buruzko *De aquellos barros* liburuan. Afera honek garaiko nafar egunkarietan izan zituen bi iruzkin labur jasotzen ditu. Hortik aurrera ez du RAE auzian sakontzen (cf. Lapeskera, 1996: 73-74). Hirugarren erreferentzia gutako baten tesian aurki liteke, gaiari ataltxo bat eskaini baikenion bertan (cf. Kintana Goiriena, 2008: 324-330). Lan horretan RAEren gutuna Azkuerekiko loturan aztertzen zen.

Hiru lan horietatik aparte ez dugu euskal perspektibatik egindako ikerketa gehiago aurkitu. Bereziki bitxia egin zaigu euskal nazionalismoari buruzko historiografiak inon ez aipatzea kontu hau, bere garaian alderdi jeltzalearen arreta piztu bazuen ere<sup>4</sup>. Horregatik guztiagatik, auziaren gaineko ikerketa monografiko baten beharra zegoen, eta artikulu honek hutsunea estaltzeko ahalegina egingo du.

Artikulu bost puntu nagusitan banatu dugu. Lehen puntuan RAEren gutunaren jatorria azaltzen da, katalan auziarekin zuen lotura agertuz. Bigarren puntuan gutuna bera aztertzen da, haren edukia, egileak eta bestelako zirkunstantziak arakatzuz. Hirugarren puntuan RAEren gutunak Euskal Herrian izan zuen eragina arakatzuz, zehazki Bizkaiko gobernadore zibilaren galarazpenei dagokienez. Hirugarren puntu hau da gure ikerketaren muina. Laugarren puntuan RAEren gutunaren ondorena deskribatzen da, bereziki Espainiako Gorteetan gaztelania ez beste hizkuntzak ere ofizial bihurtzeko egin zen saioari dagokionez. Bosgarren eta azken puntuan aurreko guztiaren laburpen-ondorioak jasotzen dira.

## 1. Auziaren jatorria: katalanaren normalizazio-prozesua

Jakina den bezala, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran katalanismoa loraldi betean zegoen, bai arlo politikoan eta bai kulturean. Gorakada hori laster hauteskunde-emaitzetan gauzatu zen. 1901. urteko hauteskundeetan katalanista talde batek *Lliga Regionalista* izeneko alderdia sortu zuen eta emaitza ona erdietsi zuten. Arrakastak animatuta hauteskunde berrietara aurkeztu eta sei urteren buruan Lliga Regionalista Kataluniako alderdi bozkatuena zen, ordura arte nagusi izandako alderdi dinastikoen gaineratik. Izatez 1907. urteko hauteskundeetan Lligaren esku geratu ziren Bartzelonako Diputazio Probintziala, Kataluniako garrantzitsuena, eta Gironako Diputazio Probintziala. 1915. urteko bozketetan, berriz, Bartzelonako alkatetza ere Lligak eskuratu zuen. Beraz XX. mende hasieran katalanismoa, Lligaren eskutik, Kataluniako erakunde publiko nagusiak bereganatzen ari zen.

Lliga alderdi katalanista kontserbadore bat zen, negoziazio eta posibilismoaren bidez lortu nahi zituena bere helburuak. Ez zen alderdi independentista, autonomista baizik, eta bere nahia Kataluniarako autogobernu zabal bat eskuratzea zen, betiere Espainiaren barruan. Lligaren ikuspegian Espainia zenbait nazionalitatek osatutako estatu bat zen, eta errealtate plurinazional hori instituzionalki ere gauzatu ikusi nahi zuen, ordura arteko estatu zentralista erreformatuz. Xede

---

4. EAJren garai honetako historia landu duten liburu erreferentzialak arakatu arren (Mees, 1992; De Pablo et al., 1999; Aizpuru, 2000), ez dugu afera honen inguruko pasadako aipurik ere aurkitu.

horrekin Lliga etengabe saiatu zen Espainiako gobernuan txandatzen ziren alderdi dinastikoekin akordioak lortzen. Saio horien emaitza nagusia 1914. urtean iritsi zen Espainiako Gobernuak *Kataluniako Mankomunitatea* izeneko erakundea sortzea onartu zuenean.

Mankomunitatea ez zen gobernu autonomo bat. Izatez ez zeukan inolako eskumen propiorik. Mankomunitatearen zeregina Kataluniako lau Diputazio Probintzialak koordinatzea zen, haiek lehendik zeuzkaten eskumenetako batzuk bere ardurapean hartuta. Mankomunitateak, bada, ez zion autogobernu-maila gehigarririk ematen Kataluniari. Alde horretatik katalanisten helburuen oso azpitik geratzen zen. Hala ere, erakunde gisa, Katalunia osoa biltzeko balio zuen, ordura arteko zatiketa probintziala gaindituta. Gainera, bere ardurapean zeuzkan eskumen administratibo urriak estutuz posible zen katalanismoaren helburuetako batzuk gauzatzen hastea, eta bide horri lotu zitzaion Lliga.

Lligaren ekimen nagusietako bat, beste talde katalanista batzuen laguntzarekin, hizkuntza-arlokoa izan zen. Kataluniako Diputazio, Mankomunitate eta udal asko bere esku zituenez, katalan hizkuntza eremu formaletan sartzeko hainbat saio egin zituen, batez ere administrazioan eta hezkuntzan, hau da, ordura arte gaztelania gailen izandako eremuetan. Emaitzak berehalakoak izan ziren. 1915. urtea iritsi zenerako Bartzelonako Diputazioan, adibidez, katalana lan-hizkuntza nagusia zen, bai batzarretan eta bai barne-dokumentazioan. Aldiz, kanpora begira, akta ofizialak gaztelaniaz idazten ziren, eta buletin ofiziala ere gaztelaniaz argitaratzen zen. Nolanahi ere, kontuan izanik urte gutxi lehenago Bartzelonako Diputazioak bere jardura formal osoa gaztelania hutsez burutzen zuela, aurrerakada nabarmena zen.

Emaitza are ikusgarriagoa zen Kataluniako Mankomunitatearen kasuan: erakunde berri bat izanik, katalana hasiera beretik bihurtu zen Mankomunitatearen lan-hizkuntza orokor eta bakarra, bai batzarretan, bai akta idatzietan, bai buletin, bai barne-dokumentazioan, bai gutuneria instituzionalean, baita kanpora begirako iragarki publikoetan, errotulazioan, zor publikoko tituluetan eta beste zenbait arlo formaletan ere.

Katalanaren zabalkunde hori hizkuntza idatziaren estandarizazio-prozesuak erraztu zuen. Izan ere, 1907. urtean *Institut d'Estudis Catalans* erakunde akademikoa sortu zen Bartzelonako Diputazioaren babespean. Eta Institut-aren atal filologikoak 1913. urterako prest zeukan katalana idazteko eredu batu eta estandar bat. Eredu horrek, eztabaida batzuk sortu arren, Lligaren eta gainerako talde katalanista ia guztien babespean jaso zuen eta berehala aplikatu zen bai erakunde publikoen paperetan, zein egunkari, aldizkari, liburu eta bestelako idazkietan (cf. Grau, 2004: 204-215).

Mankomunitate eta Diputazioen kontrolak hezkuntza-arloko ekimen batzuk gauzatzea ere ahalbidetu zion Lligari. Izan ere, erakunde probintzialen menpe baziren zenbait ikasgune, ez nagusiak baina bai garrantzitsuak, eta Lligaren bultzadaz ikasgune haietan katalana bihurtu zen irakas-hizkuntza ofiziala (nekaritza-eskoletan, ikerketa pedagogikoko guneetan, lanbide-eskoletan, etab.). Ikastetxe pribatuetan ere, katalanisten ahaleginak tarteko, katalanaren erabilera goraka zihoan. Prozesu horretatik kanpo geratu ziren, berriz, espainiar estatuak zuzenean kudeatzen zituen ikasguneak, hau da, Kataluniako eskola publikoak,

bigarren hezkuntzako institutuak, Bartzelonako unibertsitatea, eta beste zenbait zentro. Era berean, Estatuaren kontrolpean zegoen Kataluniako administrazio judiziala ere gaztelaniadun mantentzen zen.

Laburbilduz, 1915. urterako, Lligaren eta beste talde katalanista batzuen babespean, katalanak hainbat eremu publiko eta formal bereganatu zituen. Horrela, lege aldetik aitortza ofizialik ez bazuen ere, katalana *de facto* hizkuntza ofizial gisa funtzionatzen ari zen. Ez Kataluniako erakunde publiko guztietan, baina bai katalanisten kontrolpeko administrazio- eta hezkuntza-gune askotan (cf. Grau, 2004: 271-272).

Berez, garai hartan indarrean zegoen Espainiako konstituzioak, 1876. urteko konstituzioak, inon ez zuen aipatzen zein zen estatuaren hizkuntza ofiziala. Lehenago ere, XIX. mendean indarrean izan ziren espainiar konstituzio ugarietarik bakar batek ere ez zuen zehazten zein zen estatuaren edo haren administrazioaren hizkuntza ofiziala. Izan baziren gaztelania arlo publiko jakinetan erabili beharra agintzen zuten lege gutxi batzuk. Baina ez zuten administrazio osoko hizkuntza-funtzionamendua arautzen, ezta gutxiago ere. Ikuspegi legal batetik, beraz, uler zitekeen espainiar estatuak ez zuela hizkuntza ofizialik.

Hizkuntza ofizialen arautze juridiko urri hori zeren ondorio zen? Aukerak bi ziren. Batetik gerta zitekeen espainiar estatua hizkuntza-arloan aski liberala izatea, eta arautze faltak tolerantzia linguistikoa adieraztea. Praxi aldetik egia zen XIX. mendean barrena espainiar estatuko administrazio guztiek, zentraletik lokaleraino, gaztelaniaz funtzionatu zutela. Baina egoera hori ohitura eta inertzia historikoen ondorio izan zitekeen. Beraz, teorian behintzat, gerta zitekeen lurralde bateko erakundeek beste hizkuntza ofizial bat hautatuz gero estatuak ez jartzea eragozpen berezirik aukera berriari. Edo, kontrara, gerta zitekeen estatuak gaztelaniaren ofizialtasun eksklusiboa baino ez onartzea. Bigarren aukera honetan arautze juridikoen urritasunak ez luke tolerantzia adieraziko. Aitzitik ordura arteko eredu ofizialaren sendotasuna agertuko luke, aldarrikapen formalen beharrik gabe egon baitzen indarrean. Artikulu honetan bi aukeretatik zein zen zuzena ikusiko dugu. Izan ere, katalanisten agerrerak auzia esplizitu bihurtu zuen eta estatuak, edo, zehatzago esan, hura sostengatzen zuten elite politikoeak, beren jarrera argi adierazi beharra izan zuten.

Testuinguru horretan, katalan hizkuntza *de facto* ofizial gisa funtzionatzen ari zela, gaia Espainiako Gorteetara iritsi zen. 1915. urteko azaroaren 22an izan zen. Antonio Royo Villanova aragoiar politikari liberalak salaketa publikoa egin zuen Senatuan, Espainiako gobernazio-ministroari zuzendua:

*¿Conoce S. S. la práctica seguida en la Diputación provincial de Barcelona, práctica que por lo continuada ha llegado a convertirse en corruptela, de redactar los expedientes administrativos en idioma catalán? [...] He asistido a sesiones de aquella Diputación, y he oído expresarse a sus diputados en catalán, pero nunca creí que aquella tuviera otro alcance que el de un modo familiar de expresión. Los hechos han venido a demostrar, sin embargo, que esta práctica encierra extraordinaria gravedad, y ya en tal estado la cuestión, es inexplicable la ignorancia del gobierno de este asunto<sup>5</sup>.*

---

5. Aipatua in Yeste (2011: 47).

Kontua izan zen Bartzelonako Diputazioak katalanez idatzitako txosten bat bidali zuela Bartzelonako Lurralde Entzutegira, dirudienez garrantzi berezirik gabeko auzi burokratiko bat. Entzutegian, ordea, estatuko abokatuari onartezina iruditu zitzaion katalanez idatzitako testu bat jasotzea, eta tramitatzeari uko egin zion, hizkuntza ofizial bakarra gaztelania zela argudiatuta. Gorabehera horren albisteak Royo senatariaren belarrietara iritsi ziren eta kontua Senatura eraman zuen, Espainiako gobernuari zer bait egiteko eskatuz<sup>6</sup>.

Senatuan esan zuenetik Royorentzat arazoa ez omen zen linguistikoa, batasun nazionalari zegokiona baino («[no es] el pleito de la lengua de Cataluña, sino el problema de la unidad espiritual de España»<sup>7</sup>). Royok, salbuespen eta kontzesio gisa, onar zezakeen gaztelaniarik ez zekien katalan nekazari batek bere hizkuntza erabiltzea administrazioari zuzentzean («si se hubiera tratado, por ejemplo de un aldeano, de un montañés de Cataluña [...] que, verdaderamente, no hubiera conocido el castellano y se hubiera dirigido al gobernador [...] se le hubiera concedido porque se veía que se hacía sin intención de molestar ni de agraviar al Estado.»). Aldiz, Bartzelonako Diputazioak halakorik egitea, bertako kideek gaztelania zekitenean, asmo txarrez eta espainiar nazioaren aurka egindako erasotzat zeukan: «los que saben el castellano y redactan en catalán, no lo hacen por ignorar el castellano, y yo entiendo que eso es un hecho ofensivo a la Nación»<sup>8</sup>.

Nahiko nabarmena da Royok katalan hizkuntzaren aurkako aurreiritziak zituela, eta, hein batez, ikuspegi horrek bultzatzen zuela bere protesta. Senatuko debatea gertatu baino urte batzuk lehenago, 1908an, Royok liburu bat idatzi zuen katalan auziari buruz, eta bertan zioenez katalanek beren hizkuntza erabiltzen zuten gaztelaniadunak molestatzearen («el catalán se expresa siempre en su idioma sólo por molestarnos»<sup>9</sup>). Horregatik Senatuko saioan Bartzelonako Diputazioaren jarduera ez ezik katalanisten hizkuntza-arloko ekimen guztiak ere salatu zituen: «los catalanistas odiáis el castellano y queréis desespañolizar y descastellanizar Cataluña, y todas las escuelas que allí se fundan van encaminadas a desterrar el castellano»<sup>10</sup>.

Royoren Senatuko protestaren atzean bazen faktore koiuntural bat ere. Une hartan, 1915eko azaroan, alderdi kontserbadorea zegoen Espainiako gobernuan. Eta Royo alderdi liberaleko kidea izanik, katalanaren kontua ondo zetorkion oposizio-lana egiteko. Kontuan izan behar da Errestaurazio garaiko Espainian Gorteek, botere legegile gisa, oso gaizki funtzionatzen zutela, eta legeak adosteko baino gehiago alderdi lehiakideen eztabaidak haizatzeko erabiltzen zirela. Gero, oposizioan egondako alderdiari gobernatzeko txanda iristen zitzaionean sarritan ukitu gabe uzten zuen aurreko gobernuari hain gogor kritikatu ziona. Alde horretatik, katalanaren gaia, zalaparta sortzeko oposizioak zuen bideetako bat izan zitekeen, beste hainbat gai bezala.

---

6. Royoren Senatuko saioa eta haren eragina Katalunian Ferrer i Gironès-ek (1985: 107-111), Grau-k (2004) eta Yeste-k (2011) aztertu dute. Haiei segitzen diegu.

7. Aipatua in Yeste (2011: 48).

8. Aipatua in Grau (2004: 275).

9. Aipatua in Yeste (2011: 49).

10. Aipatua in Yeste (2011: 48-49).

1915. urtea baino lehen ere izan ziren Espainiako Gorteetan polemika sonatu batzuk katalan hizkuntzaren kontura. 1900. urtean, adibidez, Bartzelonako apezpikuak pastoral sutsu bat idatzi zuen predikazio erlijiosoak eta katiximaren irakaskuntza Katalunian katalanez egin behar zirela aldarrikatuz. Espainiako alderdi liberalari, une hartan oposizioan egonik, pastorala onartezina iruditu zitzaion, gaztelaniaren eta espainiar nazioaren aurkako eraso bat, eta hainbat diputatu liberalek apezpikua zigortzeko eta katalanaren erabilera mugatzeko eskatu zioten agintean zegoen alderdi kontserbadoreari<sup>11</sup>. Alderdi kontserbado-reak ez zuen halakorik egin, gobernu-erantzukizunak izanik inondik ere ez baitzitzaion komeni katalan iritzi publikoa asaldatzerik. Hala ere, errepresio-neurri deigarririk hartu ez arren, sakonean gaztelaniaren aldeko hizkuntza-politika geldoa baina etengabea mantendu zuen. Dato gobernazio-ministroak pastoralaren inguruko polemikan azaldu zuenez, bere gobernuaren politika honakoa zen:

*Una constante propaganda encaminada a extender el conocimiento de la lengua oficial, evitando que en las escuelas del Estado se enseñe otro idioma que el español, no permitiendo textos escritos en ningún dialecto, como libros de enseñanza, y adoptándose por las autoridades las medidas que se han adoptado al efecto, y que aplicará este Gobierno como las han aplicado todos los anteriores Gobiernos de España*<sup>12</sup>.

Bi urte geroago, 1902an, alderdi liberalari egokitu zitzaion Espainiako gobernu gidatzea, Romanones kondea buru zuela. Gobernu berri hark bai ezarri zuen dekretu bat eskoletan gaztelania hizkuntza bakar gisa aldarrikatuz, eta beste hizkuntzen erabilera espresuki debekatuz (1902-11-21eko dekretua)<sup>13</sup>. Baina Katalunian eta handik kanpo izan ziren protesta gogor eta ugarien ondoren (cf. Grau, 2004: 136-161), Romanonesen beraren errege-arau berri batek (1902-12-19koak) zertxobait leundu zuen dekretua: gaztelania zabaltzeko betebeharra berretsi arren, hizkuntza hori ez zekiten umeei beren hizkuntzan irakatsi ahalko zitzairen gaztelania<sup>14</sup>. Beraz gobernu liberala ere, agintean zegoenean, moderatu egiten zen egoerak behartuta.

Inoiz aipatzen zen Espainiako alderdi kontserbadorea alderdi liberala baino irekiagoa zela Kataluniako errebindikazioekiko. Lligak, adibidez, gobernu kontserbadore baten eskutik lortu zuen Mankomunitatea 1914. urtean. Hizkuntzen auzian ere espainiar kontserbadoreak ez ohi ziren liberalak bezain erasokorrak izaten. Gainera Lligak itxaropen handiak zituen espainiar alderdi kontserbado-reen lider karismatikoenarengan, Antonio Maurarengan. Izan ere, Maurak

---

11. 1900. Urteko pastoralaren polemikaz kontaketa zehatza in Grau (2004: 87-103).

12. Aipatua in Grau (2004: 91).

13. Romanonesen dekretuak honela zioen bigarren artikuluan: «*Los Maestros y Maestras de instrucción primaria que enseñasen á sus discípulos la doctrina cristiana ú otra cualquiera materia en un idioma ó dialecto que no sea la lengua castellana, serán castigados por primera vez con una amonestación [...] y si reincidiesen, después de haber sufrido una amonestación, serán separados del Magisterio oficial [...]»*. Dekretuaren testu osoa in Torrealdaí (1998: 51-53).

14. Arau berriak, besteak beste, honela zioen: «*Que los Inspectores de primera enseñanza velen sin descanso por el exacto cumplimiento de la obligación en que están los Maestros de enseñar la lengua castellana [...] Que cuando un Maestro se dirija á niños que todavía ignoren el castellano, no incurrirá en responsabilidad, si se sirve como de instrumento ó vehículo para su enseñanza, de un idioma que no sea el oficial»*. Testu osoa in Torrealdaí (1998:53-55).

espainiar alderdi kontserbadorearen baitako korrante indartsuena gidatzen zuen, *maurismo* delakoa. Korrante hura ez zen konformatzen XIX. mendeko tradizio kontserbadorearekin, hau da, gauzak lehengoan gorde nahi zituenarekin. Aitzitik maurismoak espainiar estatuaren egiturak eraberritu nahi zituen, sakoneko erreformak egin, betiere modu kontrolatu batean, «ordenako» ikuspegi batetik. Alde horretatik maurismoak Lligaren antzeko ikuspegi sozioekonomikoa zeukan (kontserbadorea baina erreformista), eta bazitekeen estatu-egituren eraberritzeari begira ere ados jartzea. Gainera Maura mallorcarra zen jaiotzez, hau da, katalan hizkuntza etxean jasotakoa (nahiz gaztetan joan Madrilera bizitzera), eta hortik ere sentiberatasun linguistiko berri bat espero zuen Lligak. Hala ere, praxian, Datoren hitzetan ikus litekeenez, espainiar kontserbadoreen jarrera ez zen askorik aldentzen Romanones liberalak bere dekretuan ezarri zuenetik. Aldika espainiar kontserbadoreek katalanarekiko keinu txikiren bat edo beste egiten zuten, bereziki liberalen aurka Lligaren laguntza lortzeko<sup>15</sup>. Baina, oro har, ordura arte behintzat, kontserbadoreek ere ez zuten hizkuntza ofizialen gaian sakoneko erreformarik egiteko asmorik agertu.

Alde horretatik 1915eko Royoren polemika kapitulu bat gehiago izan zitekeen alderdi liberalak eta alderdi kontserbadoreak elkarren aurka zerabilten ohiko jokoan. Diferentzia zen aldi hartan eztabaidak, koiuntura soilean geratu gabe, ondorio sakonagoak izan zituela, ofizialtasunaren auzia inoiz baino serioago planteatzeko bidea ireki baitzuen.

Hasteko, Royoren hitzek berehalako oihartzuna izan zuten Katalunian. Era askotako protestak izan ziren eta erreakzio haien haritik hainbat talde katalanistaren artean ekitaldi errebindikatibo nagusi bat antolatu zuten, *Diada de la Llengua Catalana* izenekoa. Lliga antolatzaile nagusien artean zegoen, baina ezkerreko katalanisten babesa ere bazuen. Era berean Kataluniako erakunde publiko garrantzitsuenek, besteak beste Mankomunitateak eta Bartzelonako Udalak, beren atxikimendua agertu zuten. Ekitaldia 1916ko urtarrilaren 1ean egin zen. Bertan hogeita hiru talderen artean adostutako manifestu bat irakurri zuten (cf. Grau, 2004: 278-280).

Manifestuan ageri zenez, katalanistek, beren kontrolpeko erakundeetan katalana bultzatzeaz gain, estatuaren esku zeuden eremuetan ere katalanaren erabilera ofiziala bermatu nahi zuten (eskola publikoetan, institutuetan, administrazio osoan...). Izatez, Royoren polemikaren eta Diadaren haritik, ofizialtasunaren eskaria Madrilera eramateko aukera aztertzen hasi ziren katalanistak, ea lege bidez berma ote zitekeen (cf. Grau, 2004: 277). Testuinguru horretan, Royoren hitzalditik hilabete eskasera eta Diadatik egun gutxira, RAEk auzi honen inguruko gutun polemikoa idatzi zuen.

## 2. Real Academia Española-ren gutuna

Aztergai dugun gutuna 1916ko urtarrilaren 5ean onartu zen Espainiako Errege Akademiaren baitan (*Real Academia Española*, RAE), eta hurrengo eguneko

---

15. Adibidez 1904. urtean Mauraren gobernu kontserbadoreak, dekretu baten bidez, baimena eman zuen telegrafoetan katalana eta estatuko beste hizkuntzak erabiltzeko, ordura arte gaztelania baino ezin baitzen erabili (cf. Grau, 2004: 170).



datarekin sinatu zen. Gutun honi batzuetan *Mauraren gutuna* deitzen zaio, RAEko zuzendariak, Antonio Maurak, sinatu zuelako. Izan ere, Maura, alderdi kontserbadorearen lider nagusia izateaz gain, espainiar akademiako kide eta zuzendari ere bazen. Gutunaren egiletzaz aurrerago esango dugu gehiago.

## 2.1. Gutunaren edukia

Gutuna Espainiako gobernuari zuzenduta zegoen, zehazki hezkuntza-ministroari (*ministro de instrucción pública*). Aipatzekoa da 1916ko urtarrilean jada ez zirela kontserbadoreak gobernuan zeudenak. Aitzitik, liberalek eskuratu zuten berriro gobernu, Romanones kondea buru zutela. Mauraren gutuna Romanonesen gobernuari zuzenduta zegoen bada. Gutuna idatzi eta hiru astera Madrilgo prentsan publikatu zen. Jaso dezagun testua osotasunean:

*Excelentísimo señor:*

*La Real Academia Española, encargada de difundir el idioma nacional y de velar por su conservación y pureza, sabe que en muchos lugares de esta Monarquía no se cumplen los preceptos legales a ello atinentes, que son los medios más eficaces para lograr aquellos fines de supremo interés patrio.*

*Hay Centros oficiales donde se prescinde en absoluto del castellano; no se exige la traducción de aquellos documentos que se presentan escritos en el dialecto de la región o la provincia; los acuerdos de sus Corporaciones y los bandos de sus autoridades locales se redactan en igual forma, y hasta acontece que en gran número de escuelas está proscrito el idioma nacional o se enseña como si fuese una lengua extranjera, que es hacer perdurables y agravar males públicos, cuyo remedio anhelará V. E. sin duda.*

*No cumpliría esta Academia sus deberes, ni aun respondería al fin primordial para que fué establecida, si no pusiese en conocimiento de V. E. esta negligencia, cuando no abuso, de aquellos que en primer término están encargados de ejecutar y hacer ejecutar las leyes que a la materia indicada atañen. Aunque las vigentes disponen que los textos didácticos de la Academia sean obligatorios en los Establecimientos de enseñanza, la Academia no ha exigido el riguroso cumplimiento de estos preceptos, mientras para el mismo objeto se han utilizado libros, si distintos de los suyos, siempre castellanos. No era, sin embargo, inofensiva aquella relajación, y convendrá corregirla, unificando las enseñanzas con la Gramática oficial. Mas ahora que parece ponerse en duda por algunos la supremacía y predominio del idioma que hablan en España la inmensa mayoría, y en América muchos pueblos hermanos nuestros, tiene la Academia obligación de cuidar que tal despojo no se realice, ni aun en parte, sustituyendo o suplantando nuestra hermosa lengua.*

*Idiomas o dialectos que se hablan en la intimidad del hogar o en las relaciones individuales, y que toman forma artística en literaturas regionales, son respetables, y la Academia los respeta y estima, porque el conjunto de las manifestaciones de la vida española forma la grandeza de la Patria; pero el verbo de ésta, como nación una e intangible, es el castellano.*

*La Academia, pues, suplica reverentemente a V. E. que, teniendo presentes la ley de 9 de septiembre de 1857, vigente en esta parte; el decreto de 26 de febrero de 1875 y otras muchas disposiciones emanadas del Ministerio que V. E. regenta, ordene a todos los encargados de la difusión y enseñanza del idioma, como rectores y decanos de Universidades, directores de Institutos, directores de Escuelas*

*Superiores, de Escuelas Normales y Colegios, inspectores de Enseñanza y maestros de Escuelas públicas, que, sin contemplación ni disculpa de ningún género, que no puede haberlas, vigilen y hagan que se cumplan los referidos preceptos legales, único medio de fomentar y unificar el provechoso cultivo de nuestro idioma castellano.*

*La Academia tendrá la resolución favorable como timbre de honor para V. E., y causa de que por ello le felicite, al igual de España toda.*

*Madrid, 6 de enero de 1916 - El Director, Antonio Maura<sup>16</sup>.*

Gutunean, ikusten denez, RAEk alarma agertzen zuen Espainiako hainbat eskualdetan gaztelania baztertu egiten omen zelako, eta tokiko hizkuntzak erabiltzen zirelako funtzio ofizialetan eta hezkuntza-zereginetan. Akademiaren iritziz, tokiko hizkuntza horiek etxeko txokoan eta eskualdeetako literaturan erabiltzea egokia zen. Baina zeregin ofizialetan eta bereziki irakaskuntza-arloan gaztelania bakarrik onar zitekeen. Horregatik, zenbait lege aipatuz, gaztelaniaren erabilera eta zabalpena bermatzeko eskatzen zion hezkuntza-ministroari.

Orain arteko historiografiak, batez ere katalanak, gutun hau osorik edo zati nagusietan behintzat jaso izan du<sup>17</sup>. Baina historiografia horrek ez du testua bere baitan aztertu. Aitzitik zuzenean jo du eragin zituen erreakzioak arakatzera. Erreakzio horiek ikusi aurretik, baina, merezi du gutunaren puntu batzuk iruzkintzea.

Hasteko, gutunaren lehen lerroan, Espainiako Errege Akademiak bere aurreneko zeregin gisa *gaztelania zabaltzea* zegoela aipatzen zuen, *hizkuntza nazional* izena emanaz («*La Real Academia Española, encargada de difundir el idioma nacional*»). Segidan beste zeregin normatiboago batzuk zehazten zituen («*velar por su conservación y pureza*»). Baina aurrenekoa gaztelania zabaltzea omen zen. Beraz, gutun honen arabera, Espainiako Errege Akademiaren lehen zeregina ez litzateke gaztelania ikertzea, ezta gaztelaniaz zuzen idazteko arauak ematea ere, baizik lehen-lehenik helburu politiko-sozial bat izango luke: gaztelania hedatzea. Helburu hori aberriarentzat interes gorenekoa litzateke gainera («*de supremo interés patrio*»). Horrela, bada, erakunde propioki akademiko gisa baino gehiago, erakunde *patriotiko* gisa aurkeztzen zuen RAEk bere burua.

Gutunean, aurrerago esaten zenez, Espainiako beste hizkuntzen aurrean gaztelaniari *nagusigoa* zegokion («*supremacía y predominio*»). Baina nagusigo hori zenbaitek kuestionatu egiten zuenez, botere publikoak eskua sartu beharra zeukan gaztelaniaren gailentasuna bermatzeko. Deigarria da gutunak esplizituki eta disimulurik gabe aipatzea *nagusigo* ideia, Espainiako hizkuntzen arteko harremana modu argiro bertikal batean planteatuz. Izan ere, RAEren beraren hiztegiaren arabera<sup>18</sup> *supremacía* hitzak lehentasun hierarkikoa adierazten du

---

16. Gutuna RAEren buletinean azaldu zen bezala jaso dugu (Real Academia Española, 1916: 133-134). Testua aldaketa gabe agertu zen garaiko Madrileko prentsan, salbu garrantzia gabeko maiuskulua-minuskula gorabehera txiki batzuk (ikus, adibidez, ABC, 1916-02-01).

17. Cf. Ferrer i Gironès (1985: 111-112), Grau (2004: 281-282), Yeste (2011: 52). Euskal Herrian Torrealdaik (1998: 61-62) jaso du gutunaren zati handi bat, baina ez osoa.

18. Espainiako Errege Akademiaren *Diccionario de la lengua española* darabilgu, Interneten eskuragarri dagoen hogeigarren edizioa: <[www.dpd.rae.es](http://www.dpd.rae.es)>.

(«*Preeminencia, superioridad jerárquica*») eta *predominio* hitzak besteen gainera kokatzen denaren boterea («*Poder, superioridad, influjo o fuerza dominante que se tiene sobre alguien o algo*»). Gutunean, bada, ez zen inolako berdintasunik proposatzen Espainiako hizkuntzen artean, ezta erretorikoki ere: gaztelania goian zegoen (edo egon beharko zukeen), agintzen, eta beste hizkuntzak behean, nagusiaren menpe.

Espainiako beste hizkuntzei esleitzen zitzaaien bigarren mailako tokia izendapenetan bertan ikus zitekeen: gutunaren hasieran gaztelania *idioma nacional* gisa aipatzen zen bitartean, gainerako hizkuntzei *dialecto* izen gutxiesgarria ematen zitzaien. Aurrerago hizkuntza horientzat «*idiomas o dialectos*» izendapen bikoitza erabiltzen zen, anbiguotasuna mantenduz, benetan hizkuntza ote ziren edo dialekto ote ziren argi ez balego bezala (edota multzo berean sartuz dialektotzat jo zitezkeenak, adibidez gaztelaniaren dialektoak, eta katalana moduko hizkuntzak). Ondoren *hizkera* horiek errespetagarriak eta aberriaren handitasunaren parte zirela esaten zen, baina bigarren mailako zereginak baino ez zitzaizkien aitortzen (etxeko intimitatean mintzatzea eta literatura erregionalean erabiltzea).

Gainera esplizituki erabiltzen zen aberriaren hizkuntza («*el verbo de esta*»), singularrean, gaztelania zela, nazioa bera bakarra zen bezala. Horrela, hizkuntza-aberri-nazio arteko lotura egiten zen, guztiek multzo batu, bakar eta zatiezina osatuko balute bezala. Izatez «*nación una e intangible*» esaten zen gutunean: *intangible* RAEren hiztegiaren arabera ezin ukituzkoa da («*Que no debe o no puede tocarse*»). Beraz, beste hizkuntzaren bat gaztelaniaren mailan edo haren ordeztzea nazioa ukitzearen parekoa litzateke, hau da, ezin ukitu zitezkeena ukitzea modukoa. Horregatik hizkuntzen afera ez litzateke gaztelaniaren aurkako eraso soilik, nazioaren beraren aurkako eraso baizik. Horren guztiaren bidegabekeria azpimarratzeko *despojo* eta *suplantación* moduko hitz markatuak zerabiltzan gutunak, beste hizkuntzak gaztelaniaren mailan jartzea tranpa bidezko usurpazioa zela adieraziz.

Gutunean seinatu beharreko beste kontu bat legeena da. Testuak legalitatearen izenean berretsi nahi zuen gaztelaniaren lehentasuna arlo ofizialean eta bereziki hezkuntzan. Eta esplizituki zehazten zituen bi arau (1857ko legea eta 1875eko dekretua), hain zuzen orduko Espainiako hezkuntza-sisteman garrantzi handia zuten bi arau. Kurioski bi arau horietan inon ez zen esaten hezkuntza osoak gaztelania hutsez izan behar zuenik, ezta bestelako mintzairak eskolan erabiltzea debekatuta zegoenik ere. 1857ko legeak (Moyano legea delakoak), bai egiten zituen gaztelaniari buruzko aipu bakan batzuk, baina soilik esateko lehen hezkuntzan (eta goragoko mailetan) gaztelania ikasgaia eman beharra zegoela («*Principios de Gramática castellana, con ejercicios de Ortografía*». 2. art.), eta ikasgai horretarako RAEren eskuliburua erabili beharra zegoela (88. art.). Aldiz, lege horrek ez zuen esaten gainerako ikasgaiak gaztelaniaz eman behar zirenik, ezta haietarako RAEren testuak erabili behar zirenik ere. Izatez gaztelania ikasgaietan bertan legeak ez zuen esaten azalpenak, ahozkoan adibidez, ezin eman zitezkeenik beste hizkuntza batean. Zalantzarik gabe Moyano legearen egileek gainulertuzat eman zuten eskolan gaztelania erabiliko zela ohiko lan-hizkuntza

gisa, eta legean bertan baziren artikulua batzuk bide hori bultzatzen zutenak<sup>19</sup>. Baina, berriro diogu, legearen letran inon ez zen kategorikoki esaten eskolako hizkuntza bakarrak (edo gailenak) gaztelania izan behar zuenik. Beste arauak, 1875eko dekretuak (Orovia dekretua delakoak), ez zeukan zerikusirik hizkuntza kontuekin, erlijioarekin baino, eta funtsean Moyano legea berretsi baino ez zuen egiten<sup>20</sup>.

Izan bazen dekretu bat, jada aipatu dugun Romanonesen 1902. urtekoa, argi eta inolako zalantzarik gabe galarazten zituena gaztelania ez beste hizkuntzak eskolan (nahiz gero Romanonesen beraren bigarren arauak zertxobait bigundu dekretu hori). Baina, bitxia bada ere, RAEren gutunak ez zuen 1902ko dekretua esplizituki aipatzen («*y otras muchas disposiciones*» generikoan sartuzat har liteke hala ere). Zergatik ez zuen aipatu? RAEko buruaren jarrera alderdikoiagatik agian? Hau da, Maura kontserbadoreak ez ziolako Romanones liberalari meriturik aitortu nahi? Ez da kontu garrantzitsua, baina edonola ere kurioa da gaztelaniaren ofizialtasuna aldarrikatu nahi zuen gutun bat izanik ez aipatzea gai honen inguruan eskura zegoen dekreturik sendoena. Halaber gutunak ez zuen esplizituki aipatzen hezkuntzatik kanpo, administrazio-arloan, gaztelaniaren ofizialtasuna berma zezakeen legerik bat ere. Bitxia hori ere.

Azkenik, katalan historiografiak seinlatu duen bezala, gutunean ez zen izenez aipatzen katalan hizkuntza, ezta Katalunia ere. Aitzitik modu orokor batean hitz egiten zen Espainiako zenbait tokiri buruz («*en muchos lugares de esta Monarquía*») arazoa Espainia osokoa balitz bezala, egiazki afera horren iturburua Katalunian zegoenean.

## 2.2. Katalanen erreakzioak eta RAEren erantzunak

Esan beharrik ez dago gutuna prentsan agertu bezain laster katalanek beren aurkako eraso gisa hartu zutela. Lehen erreakzioak 1916ko otsailaren 1ean hasi ziren, gutuna prentsan azaldu zen egunean bertan. Mankomunitateko buruek Espainiako Gobernuko presidenteari, Romanones kondeari, telegrama bat bidali zioten, beren kezka azalduz gutunagatik eta tokiko hizkuntzen aurkako jazarpenik ez hasteko eskatuz. Romanonesek beste telegrama baten bidez erantzun zien:

*Como Presidente Gobierno no olvido criterio sustentado como Ministro Instrucción en Real orden de 19 de diciembre de 1902, en que afirmando de modo expreso la necesidad de velar por difusión castellano, único idioma oficial, establecíanse prevenciones que bastaran para disipar recelos, dejando a salvo categóricamente cuanto se refiere al uso en las escuelas de idiomas o dialectos*

---

19. Moyano legeak estatuaren esku uzten zuen testuliburuak onartzeko eskumena (86. art.), alde horretatik gaztelaniazko testuak erabiltzea erraztuz. Hala ere, kristau-dotrina ikasteko testuliburuak diozesi bakoitzeko apezpikuak onartutako katixima zela esaten zen (87. art.), eta alde horretatik diozesi batzuetan katalanezko, galegozko edo euskarazko katiximak onartuz gero, Moyano legeak ez zien ageriko oztopo formalik jartzen. Edozein kasutan, irakasleak formatzeko eta Espainian barrena mugitzeko ezarritako araudi unitarioak (Moyano legearen III. atalak) erraztu egiten zuen gaztelania izatea eskolako ohiko hizkuntza. Moyano legeaz eta Espainiako hezkuntza-sistemaren sorreraz ikus Zabaleta Imaz (2000).

20. 1875. urtearen aurreko garaian, Seiurteko Demokratikoan, hezkuntza «liberalia» ezarri zen, bereziki sinesmen kontuan, eta Orovia dekretuak gauzak lehenera eraman nahi zituen Moyano legea berrezarri.

*regionales, idiomas o dialectos que contribuyen al conjunto de las manifestaciones de la vida española, formando, como declara la Academia, la grandeza de la patria*<sup>21</sup>.

Beraz, Romanonesek, batetik, RAEren gutunaren ildoan, esaten zuen eskolak gaztelania zabaltzeko zeregina zuela, baina bestetik helburu hori malgutasunez aplika zitekeela, bere behinolako arauak zehazten zuen bezala<sup>22</sup>. Bestalde Romanonesek aipatu gabe uzten zuen gainerako eremu ofizialetan gaztelania ez beste hizkuntzak erabiltzeko kontua. Grau-ren iritziz: «*Romanones, doncs, intentava tranquil·litzar la Mancomunitat, donant a entendre que, si més no a les escoles, l'ús del català seria respectat; amb tot, no desautoritzava explícitament el missatge de la RAE*» (Grau, 2004: 284). Iatez, guri iruditzen zaigu ez zela soilik Romanonesek ez zuela desautorizatzen RAEren gutuna, baizik mamiaren aldetik guztiz bat zetorrela: bai RAEren gutunean bai Romanonesen telegraman gaztelaniaren hegemonia ofiziala aldarrikatzen zen, eta beste *hizkeriei* («*idiomas o dialectos*» haiei) hitzezko laudorio hutsal batzuk baino ez zitzaizkien egiten. Romanones formalki RAEren gutuna baino zertxobait bigunagoa zen, seguruenik gobernu-erantzukizunak tarteko ez zitzaiolako komeni katalanistekin talka gogorrik. Baina telegraman ikus daitekeenez, Romanonesek eskoletan errepre-sionerri berriak sartzeari uko egin bazion, arrazoi taktiko soilengatik izan zen: indarrean zegoen legeriak berak aski ongi bermatzen zuelako gaztelaniaren nagusigoa eskolan. Beraz RAEren gutunaren eta Romanonesen artean diferentzia formal txikiak baino ez zeuden, ez edukizkoak.

Gauzak horrela, Kataluniako udal ugarik protesta egin zuten eta telegramak bidali zizkieten bai Romanonesi bai eta Maurari ere. Iatez, RAEren gutunaren aurkako erreakzio gisa, udaletxe askotan erabaki zuten katalanaren erabilera areagotu egingo zutela. Horrela, legeak aukera ematen zien arlo guztietan, katalanez burutuko zituzten beren zeregin ofizialak, besteak beste katalanez idatziz bandoak, komunikazioak, batzar agiriak, etab. Erabaki hori hartu zuten udaletxeen artean aipa litezke Bartzelonakoa, Gironakoa, Manresakoa, Sarrià-koa, eta beste batzuk (cf. Grau, 2004: 285-287).

Erakunde partikular ugarik ere protesta publikoak egin zituzten: Orfeo Català, Acadèmia de Jurisprudència i Legislació, Associació Protectora de l'Ensenyança Catalana, Associació Catalana d'Estudiants, Societat Econòmica Barcelonesa d'Amics del País, Bartzelonako Ateneoa, etab. (cf. Grau, 2004: 289). Bereziki interesgarria da Institut d'Estudis Catalans-ek bere protestan aipatu zuen ideia bat: zilegi zela erakunde akademiko bakoitzak bere ikuspegiak izatea hizkuntza bati eta besteari buruz, eta zilegi zela ikuspegi desberdinen arteko desadostasuna; baina RAEk norgehiagoka intelektual librearen eremua gainditu zuela indarrari dei egitean bere ikuspegien alde («*amb sorpresa veiem la Reial Acadèmia Espanyola acudir als poders públics, en sol·licitud de mides de força*» [cf. Senz, 2011: 133-134]).

---

21. Telegrama in Grau (2004: 284).

22. Gogoratu: «*Cuando un Maestro se dirija á niños que todavía ignoren el castellano, no incurrirá en responsabilidad, si se sirve como de instrumento ó vehículo para su enseñanza, de un idioma que no sea el oficial*».

Katalan prentsan ere ugariak izan ziren RAEren gutunaren aurkako artikulak (*La Veu de Catalunya* egunkarian, *La Nació* astekarian, etab). Nolanahi ere, Lligako buruek, ez zuten Maurarekin eta mauristekin haustura larririk sortu nahi, Madrilen lehentasunezko interlokutoretzat baitzituzten. Horregatik, gutunaren edukia gogor kritikatu arren, Maura bera pertsonalki desenkusutzen saiatu ziren, esanez Espainiako Errege Akademiaren baitan beste batzuk izan zirela gutuna bultzatu zutenak eta Maura erabili egin zutela afera horretan. Ezkerreko katalanistek, aldiz, Maura erruduntzat jo zuten. Izatez garaiko prentsan *Mauraren gutun* gisa aipatu ohi zen testua, egilea edo erantzulea Maura balitz bezala (cf. Grau, 2004: 282-283).

Nork idatzi zuen benetan gutuna? Mauraren ekimena izan al zen ala beste batzuen? Auzi hau ez du orain arteko historiografiak ikertu, baina badu interesik eta merezi du ohar batzuk egitea. Hasteko, RAEren beraren buletin ofizialera joz gero, gutunari dagokion atalean zera irakur liteke: «*En la sesión del 5 de enero la Academia aprobó por unanimidad, y acordó dirigir al Gobierno [...] la siguiente exposición [...]*» (ondoren gutunaren testua dator) (Real Academia Española, 1916: 133). Hau da, buletinaren arabera, gutuna *aho* batez onartu zen, Akademian bilduta zeuden kide guztien artean («*por unanimidad*»).

Buletin berean, aurrerago, gutunak jaso zituen kritikak aipatzen ziren, eta zera esaten zen: «*En forma descompuesta unos y otros menos agresivos, pero igualmente injustos, lanzaron sus censuras sobre la Academia y sobre su ilustre Director, que, en todo caso, como tal Director había procedido.*» (Real Academia Española, 1916: 134). Beraz, buletinaren arabera, Maurak Akademiaren izenean egin zuen egin zuena. Eta gutuna Maurak sinatu bazuen ere, zuzendari zen heinean egin zuen, gutuna berez Akademia osoarena baitzen. Alde horretatik ezerk ez du pentsarazten Maurak bere kabuz eta Akademiaren onespenez gabe idatzi zuenik gutuna. Horri lotuta, izendapen historiografiko gisa, egokiagoa iruditzen zaigu testuari *RAEren gutuna* deitzea, eta ez *Mauraren gutuna*.

Galde liteke gutuna RAE osoarena izan arren ez ote zuen Maurak modu alderdikoiaren aprobe txatu. Izan ere, Gobernua zegoen Romanones liberalari oposiziotik presio egiteko balia zezakeen. Gainera esan dugu gutunak ez zuela aipatzen 1902. urteko Romanonesen dekretua eta hori ere zirrikada alderdikoi bat izan zitekeela. Alderdi-jokoen dinamika hutsetik begiratuta, ordea, ez da argi ikusten gutun honen logika. Izan ere, gutunak liberalak estutzeko balio zezakeen, baina beste aldetik mauristen eta Lligaren arteko harremana gaiztotu zezakeen, eta ez dirudi hori kontserbadoreen interesekoa zenik. Horri erantsi behar diogu gutuna hasieran modu pribatuan helarazi ziotela Romanonesen hezkuntza-ministroari, hau da, printzipioz zarata publikorik atera gabe, eta hori ere ez dator bat alderdi-jokoen dinamikarekin. Gutuna ondoren prentsara zabaltzea bai izan zitekeen ekintza alderdikoi bat, baina ez dakigu Mauraren filtrazio bat izan ote zen, ala beste norbaitena. RAEk berak, bere buletin ofizialean, ez zuen kexurik azaltzen gutuna publiko egin zelako, eta alde horretatik baliteke erakundeak berak ofizialki edo ofiziosoki zabaltzea. Gogoratu, bestalde, Romanonesek Mankomunitateari bidalitako telegraman ez zuela gutunaren aurka gogor erreakzionatu, eta alde horretatik ere ez dirudi bere aurkako eraso pertsonaltzat hartu zuenik. Hala ere, Maura une hartan gobernutik kanpo egoteak seguruenik

erraztu egin zuen gutuna bere izenez sinatzea: agintzeko erantzukizuna gainean izan balu, ez zen hain erraz ausartuko katalanisten haserrea pitz zezakeen gutun hura sinatzera. Horrela, bada, gutunaren atzean joko alderdikoiaren bat egon zitekeenik guztiz ukatu gabe, joko hori, egotekotan, ez dirudi ekimenaren eragile nagusia izan zenik.

Zalantza geratzen da, ea Maura nolabait erabili egin ote zuten RAEko beste kide batzuek. Buletinean bertan ez dago hori pentsaraz dezakeen ezer. Are gehiago. Buletinean afera honen inguruko bigarren gutun bat azaldu zen, hau ere Maurak sinatua, baina lehen pertsona, zuzendariaren beraren ikuspegi propioagoa adieraziz bezala. Bigarren gutun horrek Bartzelonako Ateneoko lehendakariak idatzitako kexa-eskutiitziari erantzuten zion. Ateneoaren kexua oso moderatua zen, errespetu osoz egina<sup>23</sup>. Baina hala ere, RAEren iritziz katalanista erradikalena bezain okerra («*Moderada en sus términos, pero tan equivocada y gratuita en el fondo como los otros escritos*»<sup>24</sup>). Ez dugu Mauraren gutun hori osorik jasoko, baina aipatzekoak dira pasarte hauek:

*Hallo natural que el Ateneo no lograra por entero preservarse de ofuscadores apasionamientos ambientes, sin los cuales no se habría podido divulgar en esa ciudad cultísima una versión que tergiversa de modo lamentable y, además, inverosímil, el impulso y el designio de la Academia, olvidados los términos claros de su acuerdo. [...] La petición de la Academia, en verdad exenta de desamor a las lenguas regionales y circunscrita a que se cumplan las leyes concernientes a enseñanza en las escuelas y a uso oficial del castellano, no puede desagradar al Ateneo*<sup>25</sup>.

Ikusten denez Maurak bigarren gutun honetan, lehen pertsona idatziz, berretsi egiten zuen RAEren izenean idatzitako gutuna eta katalanen protestak bidegabe gisa gaitzesten zituen. Beraz ez da dudarik Maurak bere egiten zuela RAEren gutuna bete-betean, ez baitzuen aukera baliatu lehen esandakoa nolabait biguntzeko edo zuzentzeko.

Interesgarria da, bestalde, bai gutun honetan, bai eta RAEren buletineko azalpenetan ere, behin eta berriro aipatzen zela urtarrileko gutunak jasotako kritikak bidegabeak zirela, haren edukia manipulatu egin zela, eta RAE ez zegoela Espainiako beste mintzairen kontra. Hori zela-eta buletinak ohar gehigarri batzuk erantsi zituen bere orrietan:

*Ni la Academia ni su Director pretenden que desaparezca el catalán ni otro idioma ni dialecto de los que se hablan en España, y que la Academia no confundió (pues de alguien más que de catalanes y castellanos se compone la nación), ni*

---

23. Ateneoaren gutunean, besteak beste, zera aipatzen zen: «*No niega esta Junta el derecho de la respetable Academia Española a difundir el castellano*» eta «*No es por malquerer contra nadie, sino por amor y respeto a lo propio, por lo que se hace uso de este derecho [katalana erabiltzea]. Ni se enseña en todo caso la lengua castellana, en determinadas escuelas, "como podría enseñarse una lengua extranjera", más que por imperiosa necesidad pedagógica de remontarse a lo desconocido por el camino de lo conocido*», hala ere, dialektoak eta hizkuntzak nahastearen bidegabekeria aipatzen zuen gutunak, eta hizkuntzen arteko gatazkarik ez pizteko eskatzen zion RAEri (ikus testu osoa in Real Academia Española, 1916: 134-135).

24. Hala deskribatzen zuen Akademiaren buletinak (Real Academia Española, 1916: 134).

25. Gutunak ez du datarik, baina 1916ko otsailaren erdialdean idatzi bide zen. Ikus testu osoa in Real Academia Española (1916: 135-136).

*sienten aversión hacia ninguna de aquellas hablas particulares* [Real Academia Española, 1916: 136].

Eta beste *hizkeren* aurka ez zegoela frogatzeko horien alde egindako lana deskribatzen zuen buletinak:

*La Academia Española publicó, en forma lujosísima y opulentamente ilustradas, las Cantigas del Rey Sabio, escritas en gallego. Convocó frecuentes Certámenes sobre temas lingüísticos regionales y acaba de premiar e imprimir el importante libro del señor Lamano sobre el dialecto salmantino. El año pasado obtuvo de S. M. el Rey el Premio Fastenrath para la novela de doña Concepción Espina, La Esfinge maragata, escrita con abundancia de vocablos leoneses, que, como puede verse en el presente número del Boletín, ha dado margen a curioso estudio filológico hecho por uno de nuestros compañeros.*

*Y ahora mismo, en el presente mes, ha logrado el referido premio Fastenrath, a propuesta de la Academia, la novela de don Alejandro P. Lugin, La casa de la Troya, saturada de frases y términos gallegos.*

*¿Cómo puede tacharse, pues, sin evidente injusticia, a la Academia Española de profesar aversión o desprecio a los modos de hablar propios de cada una de nuestras provincias? Pero, por encima de ellos, como único intermedio oral entre todos los españoles e hispanoamericanos, está el castellano, este santo dialecto castellano, que no se opone a ninguno de los demás lenguajes peninsulares, porque es uno de ellos, un hijo de todos ellos, pues todos ellos entraron en su formación y contribuyeron a levantarlo y engrandecerlo y hacerlo capaz de crear esa literatura incomparable, orgullo legítimo de nuestra raza* [Real Academia Española, 1916: 136].

Hau irakurrita ez da dudarik geratzen katalanistek zuzen eta inolako okerrik gabe interpretatu zutela RAEren lehen gutuna. Izan ere, Espainiako Errege Akademiak, gaztelania ez beste hizkuntzen alde egindakoa nabarmendu nahian esaten zituenak edozein katalanista mintzeko modukoak ziren. Hasteko, Akademiak maila berean jartzen zituen galegoa moduko hizkuntza bat eta gaztelaniaren Salamancako dialektoa, modu horretara gorago aipatu den dialekto-hizkuntza nahasketa berretsiz. Bestalde *hizkera* horien alde egindakoak zerrendatzean, RAEk objektu pasibotzat hartzen zituen, bizitza eta toki propiorik aitortu gabe garaiko gizartean. Izan ere, zer egin zuen RAEk haien alde? Galegozko Erdi Aroko poema batzuk argitaratu (zalantzarik gabe interes historikofilologikoa zutelako), Salamancako dialektoaren ikerketa bat babestu, eta gaztelaniaz idatzitako obra literario pare bat saritu, haien berezitasuna leonerazko edo galegozko hitz eta esaldi batzuk jasotzea izanik. Laburbilduz, RAEk gaztelania ez beste mintzaireri aitortzen zien lekua bitarikoa zen: batetik ikerketa filologikoen gai izan zitezkeen, eta bestetik gaztelaniazko prosa literarioren baitan ukitu apaingarrietarako erabil zitezkeen. Hori zen dena.

Kontzesio erretoriko gisa gaztelaniari ere *dialekto* deitzen zion testuak (baina dialekto *santua* zela zehaztuz), eta gaztelania ez zegoela Iberiar Penintsulako beste hizkuntzen aurka eransten zuen, haietako bat zelako, aditzera emanez bezala Iberiar Penintsulako hizkuntza guztien artean anaitasun- eta berdintasun-harremana zegoela. Baina testuak berehala zehazten zuen gaztelania ez zela besteak bezalakoa, beste guztien *semea* baizik, denen ekarpenez osatua, denen artean gora altxatua eta ezin konparatuzko literatura izatera iritsi zena. Gainera



gaztelaniak ahoz ere komunikazio-gaitasun bereziak zituen, hura baitzen espainiar guztien eta hispanoamerikarren komunikazio-tresna komun bakarra. Hau da, Akademiak, bere buletinaren bidez, oso-osorik berresten zuen urtarrilaren 6ko gutunean azaldutako hierarkia linguistikoa: gaztelania zen benetako hizkuntza, ofiziala eta nazionala, goi-mailakoa, parerik gabea, eta gero baziren *hizkera* lokal batzuk, pintoreskoak eta ikertzeko modukoak, baina inondik ere ezin erabilitezkeenak hezkuntzan eta arlo ofizialetan. RAEk ukatu egiten zuen mintzaira horiek hil nahi zituenik, baina praktikan ez zien bizitza modernoan irauteko tokirik bat ere uzten.

### 2.3. Gutunaren atzeko pertsonak

Egindako iruzkinekin gutunaren edukia argitutzat eman dezakegu. Baina gutunaren egiletza zehatza ezagutu gabe segitzen dugu. RAEren buletin ofizialak ez zuen xehetasun hori argitzen. Izatez ez zuen eskaintzen gutuna onartu zen egunean elkartu ziren akademikoen zerrenda ere. Auzia argitzen laguntzen du, aldiz, Ferrer i Gironès katalan ikertzaileak. Akademiaren jatorrizko aktetan, Emilio Cotarelo RAEko kide eta idazkari biziartekoak idatzitako testu bat aurkitu du: «*El que suscribe leyó [urtarrilaren 5eko batzarraz ari da] el borrador de una comunicación que fué aprobada, en que este Cuerpo Literario expone al Gobierno el abandono que existe en cuanto al empleo de la Lengua Castellana en nuestras escuelas y otros establecimientos de enseñanza*»<sup>26</sup>.

Hortaz, formalki Emilio Cotarelo izan zen gutunaren zirriborroa urtarrileko batzarrean aurkeztu zuena. Testuak ez du zehazten ea Cotarelok berak idatzi zuen zirriborroa, nahiz hala dirudien, ezta bere ekimen propioz aurkeztu ote zuen ere. Gerta zitekeen batzarraren aurretik, Royo senatariaren hitzek Katalunian sortutako erreakzioa ikusita, zenbait akademikok zerbait egin beharra sentitzea eta haien bultzadaz edo enkarguz aurkeztea proposamena Cotarelok. Edo gerta zitekeen *motu proprio* egitea. Aipatzekoa da Cotarelo ez zela alderdi-gizona, ezta militantzia publikoan nabarmendutakoa ere. Aitzitik eruditu bat zen, Espainiaren Urrezko Aroko literaturan aditua. Horrek indartu egiten du gutunaren jatorri ez-alderdikoiaren hipotesia. RAEren buletinean jaso ziren azalpen gehigarriak ere (gorago iruzkindu ditugunak), uste izatekoa da Cotarelok berak idatzi zituela.

Horrela, bada, RAEren gutuna, bere kabuz edo beste batzuen babespean, Cotarelok aurkeztu zuen. Ekimenaren atzean zegoena pertsona bakarra izan ala taldetxo bat izan, ondoren, batzar egunean, Akademia osoak babestu zuen, kide guztiek onartu baitzuten testua (ez dakigu bere hartan, ala gehikuntza edo zuzenketaren batekin). Gero, gutuna Mauraren sinadurapean zabaldu zen, eta hortik eman zuen Maura bera izan zela eragile nagusia. Baina berriro diogu, gutuna Akademia osoak onartu zuen aho batez (Maurak barne).

Nortzuk ziren gutuna onartu zen egunean RAE baitan bilduta zeuden akademikoak? Ferrer i Gironès-ek haien izenak bildu ditu, hemeretzi guztira, baina ez du haietaz informazio gehigarririk ematen. Gauzak zuzen ulertuko badira, ordea, komeni da akademiko haien ezaugarri batzuk aipatzea.

---

26. Aipatua in Ferrer i Gironès (1985: 111).

Horrela, gutuna onartu zutenen artean, hasteko, José Echegaray zegoen, politikoko liberala, behinola ministro izana, dramaturgo gisa ere oso ezaguna eta 1904. urtean literaturaren Nobel saria jasotakoa; orobat Juan Navarro Reverter, politikoko kontserbadorea, hau ere ministro izana zenbait aldiz; Jacinto Octavio Picón, nobelista, errepublikazalea eta antiklerikala; Eduardo de Hinojosa, zuzenbide-historialaria Madrileko unibertsitatean, alderdi kontserbadorearekin senatari izana, baita Bartzelonan gobernadore zibil ere, eta hezkuntza-arloko zuzendari nagusia beste une batean; Eugenio Sellés, Gironako markesa, dramaturgoa eta alderdi liberaleko kidea; José Alemany, grezierako katedraduna Madrilgo Unibertsitatean eta sanskritoan aditua; Francisco Fernández de Bethencourt, genealogista, erregezale sutsua eta katoliko militantea; Leopoldo Cano, espainiar armadako jenerala, ideologikoki liberala, ukitu antiklerikaldun antzerki arrakastatsuak idatzi zituen; Francisco Codera, arabista eta katedraduna Madrilgo Unibertsitatean; Juan Antonio Cavestany, dramaturgoa, diputatu eta senatari kontserbadorea zenbait aldiz; Francisco Commellerán, latinista, Hezkuntza Ministerioaren aholkularia; Pedro Novo, espainiar itsas armadako kontralmirantea eta dramaturgoa; José Rodríguez Carracido, Madrilgo unibertsitateko kimikako katedraduna; Daniel de Cortázar, geologo, topografo eta ingeniaria; Francisco Fernández y González, Madrilgo Unibertsitateko errektorea; Francisco Rodríguez Marín, folklorista eta Cervantesen obran aditua; eta jada aipatuak ditugun Emilio Cotarelo, Akademiako idazkaria eta Antonio Maura, RAEko zuzendaria, alderdi kontserbadoreko burua, eta garai batean Espainiako gobernuko presidente ere izana<sup>27</sup>.

Hau da, RAEren gutuna onartu zuten akademikoen artean baziren Espainiako aginte-postu gorenak bete zituzten pertsonak (presidente, ministro, senatari, gobernadore...), buruzagi militarrik, ospedun idazleak (bat Nobel saria irabazitakoa), zientzialariak, unibertsitateko zenbait katedradun, aristokrata bat, eta oro har Espainiako mundu politiko-intelektualean ospe eta itzal berezia zuten pertsonak. Aipatutakoez gain baziren akademiko gehiago ere, dena delako arrazoiengatik ez zutenak urtarrileko batzarrera joaterik izan. Horien artean aipa liteke Benito Pérez Galdos, garaiko espainiar nobelista ezagunena, ideologikoki errepublikazalea; edo José Ortega Munilla, kazetaria, liberala, Madrilgo *El Imparcial* egunkari ospetsuaren zuzendari-jabea (eta José Ortega y Gasset filosofoaren aita); edo Ramón Menéndez Pidal, garaiko espainiar filologo onena, orobat historialaria. Ez dugu inon aurkitu falta izan ziren kide haiek RAEren gutuna kritikatu zutenik. Hortaz, baieztatu liteke RAEko kide guztiek, aktiboki edo pasiboki, ontzat eman zutela gutunaren edukia.

Ohartu akademikoen multzoa zeinen heterogeneoa zen, eta hala ere denak bat etorri ziren gaztelaniaren hegemonia ofiziala aldarrikatzeko orduan. Akademiko haietako batzuek, lehenago edo geroago ere, gaztelaniaren nagusigoa defendatu zuten katalanaren edo estatuko beste hizkuntza batzuen aurrean. Adibidez urtarrileko batzarrean agertu ez ziren Benito Pérez Galdosek<sup>28</sup> edota Ramón

---

27. Akademikoei buruzko albisteak in Zamora (1999: 109-289).

28. Honela idatzi zion Galdosek Narcis Oller katalan nobelistari 1886. urtean: «*No puede Ud. figurarse el desconsuelo que siento al ver un novelista de sus dotes, realmente excepcionales, escribiendo en lengua distinta del español [...] una lengua [katalana] cuyas bellezas no entiendo y cuya resurrección como lengua literaria no me explico [...]*» (aipatua in Azurmendi, 1992: 218).

Menéndez Pidalék<sup>29</sup>. Baina 1916ko gutuna RAEko akademiko *guztiek* aho batez onartu zuten. Ez zen, beraz, partikular baten edo batzuen iritzia, ezta borroka alderdikoian zebilen politiko jakin baten jokaldi oportunistaren ere. Berez, ikusi dugunez, ezin bazter daiteke Maurak gutuna bere interes alderdikoen alde aprobetxatu nahi izatea. Edozein kasutan gutuna RAE *osoak* onartu zuen heinean, hau da, bertako kide kontserbadoreek zein liberalek, aristokratek zein errepublikazaleek, elizkoiek zein antikerrikalek, baita politika aktibotik urrun zebiltzan erudituek ere (itxuraz azken hauetako bat izanik ekimena abiatu zuena), gutuna alderdi-jokoa baino dimentsio zabalagoan kokatu beharra dago. Ohartu gainera gutuna onartu zutenen artean hainbat belaunalditako pertsonak zeudela, batzuk XIX. mendearen erdialdeko tradizioetik zetozenak, beste batzuk XX. mendeari lotuagoak.

Hau da, gutunak, Akademiaren baitan zegoen belaunaldien arteko eta ideologiaren arteko kontsentsu ezin zabalagoa jasotzen zuen. Eta Akademia, ikusi dugunez, ez zen gizartetik isolatuta zegoen eszentrikoen elkarte bat. Akademiak Madrilgo elite politiko-kultural prestigiotsuena biltzen zuen. Madrilgoa diogu, RAEko kide izateko, Espainiako edozein tokitan jaiotako arren, hiriburuan bizi beharra baitzegoen. Eta Madrilgo elitea esatean Espainia osoan nagusi zen eliteaz ari gara, bai bertan jaiotakoak, bai probintzietatik iritsi eta gorteko bizitzan integratu zenak ere. Hau da, Estatu osorako ereduak ezartzen zituen eliteaz. Gainera, akademiko askoren ibilbide pertsonalean ikusten denez, Akademia eta Espainiako boterea estu-estu lotuta zeuden.

Horregatik guztiagatik, oker handirik gabe esan liteke RAEren gutunak Madrilgo eta Espainia guztiko elitearen oinarritzko kontsentsuetako bat islatzen zuela: gaztelaniari gailentasun eskusiboaren kontsentsua. Beste hitz batzuekin esateko, 1916ko gutuna, hizkuntzen auziari zegokionez, Espainian nagusi zen ikuspegiaren agerpen paradigmatikotzat har daiteke. Gutunak ederki laburbiltzen zuen, ez soilik era guztietako espainiar alderdien ikuspegi linguistikoa, ezpada alderdietatik kanpo ere, «zentzu komun» gisa edozein pertsona eskolatuk ontzat eman zezakeena; hain zena onartua, hain nabaria, hain «naturala», esan beharrik ere ez zegoena. Baina katalanak beren hizkuntzaren normalizazioarekin hasi zirenean, zentroko eliteek erreakzionatu beharra sentitu zuten, inplizitua zena esplizitu eginez. Horregatik da interesgarria gutuna, esplizitu egin zuelako denek onartu baina normalean esaten ez zutena.

---

29. Menéndez Pidal buruzko azterketa Gartzia (2004) eskaintzen du. Bertan zorrotz iruzkinduta aurki liteke Menéndez Pidalék 1902. urtean izandako polemika bat, katalanaren erabilera ofizialaren kontra (cf. Gartzia, 2004: 324-335). Ordukoak dira Menéndez Pidalen hitz hauek: «*Los catalanistas pueden tachar de centralismo arbitrario el uso de la lengua española en Cataluña, pero es deber de los gobernantes el mantenerla y afirmarla*». Eskolako hizkuntza gisa ere (ikasgai soil gisa ere) ez zuen katalana onartu nahi, aitortzen zion toki bakarra unibertsitate-mailako ikerketa-gaiarena izanik: «*El Estado, lejos de buscar la muerte del catalán, debe promover su estudio, aunque no el estudio empírico y elemental de la escuela, que es innecesario y no se debe sumar con el preciso de la lengua nacional, sino el estudio más profundo y científico en la Universidad*». Geroago ere, adibidez II. Errepublika garaian, gaztelania ez beste hizkuntzen erabilera ofiziala mugatzeko saioak egin zituen (cf. Gartzia, 2004: 458-482).

### 3. Eragina Euskal Herrian

Puntu honetara helduta, eman dezake RAEren gutunak ez zuela eragin berezirik izan Euskal Herrian, eztabaida nagusia katalanekin izan baitzen. Baina gogoratu gutunak salaketa generiko bat egiten zuela, esanez Espainiako toki askotan baztertzeko zela gaztelania. Hortaz, salaketak, potentzialki behintzat Euskal Herriari ere eragiten zion. Eta potentzialki ez ezik praktikan ere eragin zion.

#### 3.1. Bizkaiko gobernadore zibilaren galarazpenak

Madrilgo prentsan RAEren gutuna argitaratu eta hurrengo egunean, 1916ko otsailaren 2an, *Euzkadi* egunkari jeltzaleak, bere lehen orrian, galarazpen baten albistea jaso zuen. Berriak erredakzioan jasotako eskutitz bati oihartzuna ematen zion. Eskutitzean honela kontatzen zen:

*[...] el señor gobernador civil de Bizcaya [Alfredo Queipo de Llano] ha prohibido al alcalde de Mundaka que los bandos ó pregones sean dados en euzkera, y le obliga, desde el último sábado, á que los pregones se digan en erdera. En Mundaka, siempre, los pregones se han dado en euzkera. ¿Qué razón se invoca para obligar á lo contrario?*

*Me dice un amigo que este último verano, siendo alcalde de Mundaka un caciquista, cierto individuo se acercó á aquella autoridad, llamándole la atención sobre los bandos y el señor alcalde de entonces le despachó con cajas destempladas. Por esto se sospecha que el aludido individuo debe ser el que ha pedido al señor Queipo de Llano que prohíba en Mundaka los pregones en euzkera.*

*Y pensar que ese individuo es vasco. ¡Qué degeneración y qué desgracia!*<sup>30</sup>

Hortaz, Bizkaiko gobernadore zibilak, Alfredo Queipo de Llanok, ustez salaketa partikular batean oinarrituz, Mundakako alkateari galarazi egin zion Mundakan pregoiak euskaraz egitea, nahiz ordura arte beti euskaraz egin ziren, baita agintean alkate dinastikoak (*caciquista*) egon ziren garaietan ere. *Euzkadi* egunkariak konfiantza osoa ematen zion albisteari eta salaketa bere egiten zuen, editorial gisako testu batean enmarkatuz gutuna:

*La correspondencia de nuestro amigo, que nos merece toda fe, y además la vemos confirmada por otros conductos, nos hace saber que el señor gobernador se ha metido irreflexiva y desconsideradamente con nuestra lengua, dictando una orden inaudita, que ningún vasco bien nacido puede conocer sin sentirse abrumado de vergüenza é ira. [...] Nosotros, por de pronto, protestamos con toda energía, con toda la virilidad, de la disposición del señor gobernador de Bizcaya, completamente arbitraria, contraria al derecho natural que asiste á un pueblo al uso de su propio idioma [...]*<sup>31</sup>

Albiste horretan inon ez zen aipatzen RAEren gutuna, ez Maura, ez Kataluniako konturik. Alde horretatik RAEren eskariekin zerikusi gabeko auzi bat izan zitekeen, kasualitatez une berean gertatua. Gainera bazen gauza kurioso bat. *Euzkadi*n argitaratutako gutunak urtarrilaren 31ko data zuen (astelehenekoa), eta bertan aipatutako albistea aurreko larunbatari zegokion (urtarrilaren 29ari), hau da,

30. "El gobernador y el euzkera", *Euzkadi*, 1916-02-02 (letra etzanak jatorrizkoan).

31. "El gobernador y el euzkera", *Euzkadi*, 1916-02-02 .

RAEren gutuna Madrilgo prentsan argitaratu aurreko uneari. Baina, berehala ikusiko dugunez, ez zen RAEren gutunarekin zerikusi gabeko kontua.

*Euzkadi* egunkariak Mundakako gertaera publiko egiteak ez zuen Bizkaiko gobernadorea iritziz aldarazi, aitzitik alderantziz. Horrela, lehen albistea azaldu eta hurrengo egunean, otsailaren 3an, *Euzkadi* egunkariak Mundakako gertaera kritikatuz beste artikulu bat idazten zuen bitartean, Bizkaiko gobernadoreak zirkular orokor bat jaulki zuen aurrekoaren bidetik. Bertan hizkuntzen erabilera ofizialaren inguruko araudi bat zehazten zuen Bizkai osorako. Zirkularra, hurrengo egunean argitaratu zen Bizkaiko buletin ofizialean. Bere interesetatik osorik jasotzen dugu:

#### CIRCULAR

*Continuamente y con repetida insistencia llegan á este Gobierno denuncias y quejas de que en las sesiones que celebran los Ayuntamientos, los acuerdos de éstos, y los bandos y pregones que, tanto para su ejecución como para el régimen y gobierno de sus respectivos Municipios, dictan los señores Alcaldes, los publican en dialecto vascongado.*

*El idioma oficial del Estado español, del que forma parte esta provincia, es el castellano, y éste está mandado usar por la ley de Instrucción pública de 9 de Septiembre de 1857, por los Reales decretos de 26 de Febrero de 1875 y de 21 de Noviembre de 1902, y por la Real orden de 19 de Diciembre de 1902, en todos los Centros oficiales de la Nación, carácter que ostentan las Corporaciones municipales.*

*La ley Provincial me manda, por su art. 20, el cuidado de ejecutar y de hacer que se ejecuten en la provincia de mi mando las leyes, decretos y disposiciones del Gobierno, y por lo tanto, el de obligar á todas las Corporaciones, Centros y Autoridades que dependan de la mía, á que en sus actos y relaciones oficiales usen el idioma nacional.*

*Y dependiendo de mi Autoridad, según el art. 179 de la ley Municipal, los Ayuntamientos, Alcaldes y Regidores, y siendo obligación ineludible del Alcalde por ministerio del art. 113, núm. 2.º, del mismo Cuerpo legal el cuidar bajo su responsabilidad, cumplir y hacer que se cumplan en su jurisdicción las leyes y disposiciones, dentro de aquella y de éstas, está la de usar y hacer que se usen por sus administrados, en las relaciones y actos oficiales, el idioma oficial de la Nación.*

*Por ello, encargo muy especialmente á todos los Sres. Alcaldes, que en los referidos actos y relaciones y en los bandos y pregones que dicten para darlos á conocer al público, usen el idioma castellano, sin perjuicio de que, privadamente con referencia á todos los actos oficiales, puedan dar las explicaciones precisas en su dialecto peculiar, y adosar, á los referidos bandos y pregones, las traducciones pertinentes en vascuence.*

*Bilbao 3 de Febrero de 1916.*

*El Gobernador, A. Queipo<sup>32</sup>.*

Euskararen historia sozialean ez da erraza hau bezalako agiriak topatzea. Euskararen bazterketa inplikatu duten testu instituzional gehienak bitarikoak izan dira. Batetik testu oso orokorrak, estatu osorako lege edo arau nagusi bat jasotzen

---

32. "Núm. 3.521. Gobierno civil de Vizcaya", *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 1916-02-04, 28. zk., 109. or.

zutenak, erdara ofiziala erabili beharra aldarrikatuz (euskara edo tokiko beste hizkuntza ez-ofizialik izenez aipatu gabe normalean), eta bestetik testu oso konkretuak, herri jakin batean euskararen erabilera galaraziz esparru zehatz batean, adibidez eskolan, normalean bertako autoritate txikiren baten eskutik (alkatea, maisua, etab). Horrelako agirien argitan zenbait ikertzailek ukatu edo apaldu egin nahi izan dute estatu aparatua erantzukizuna tokiko hizkuntzen jazarpenean, esanez estatuak bere hizkuntza ofiziala bultzatzen zuela baina besteak baztertu gabe, eta jazarpenak, egon ziren kasu urrietan, eskala txikiko agintarien kontua izaten zirela<sup>33</sup>. Agiri honetan, aldiz, estatuaren goi-ordezkarri bat daukagu, gobernadore zibila, Bizkai osoko alkateei zuzenean eta argi esaten ziena ezin zutela euskara ofizialki erabili, estatuaren hizkuntza ofizial bakarria gaztelania zelako. Goitik beherako agindu argi bat beraz, ez tokiko agintariek berenez hartutako erabaki bat. Hala ere, agiri larri hau orain arte guztiz oharkabean geratu da euskal historiografian<sup>34</sup>.

Zirkularren hasieran esaten denetik argi dago ordura arte bandoak euskara hutsez egitea ohikoa zela Bizkaiko herri askotan. Beraz ez zen Mundakako bitxikeria bat, usadio aski orokorra baino, eta Bizkaiko gobernadoreak esplizituki galarazi zuen. Bere agindua betearazteko hainbat lege, dekretu eta arau aipatzen zituen, eta zalantzarik gabe zirkularra irakur zezakeen edozein alkatek Estatuaren eta Legearen pisu osoa sentituko zuen agindua bermatzen. Baina, irakurlea jabetuko zenez, zirkularrean gaztelaniaren ofizialtasuna baieztatzeko aipatzen ziren arau juridiko guzti-guztiak hezkuntzari zegozkion: 1857ko legea, Moyano legea zen, eta ikusi dugunez, ez zuen hezkuntzan bertan gaztelaniaren erabilera eskusiboa esplizituki aipatzen; 1875eko Orovio dekretuak Moyano legea berretsi baino ez zuen egiten, hizkuntza konturik aipatu gabe; 1902ko dekretua Romanonesena zen, eskolan gaztelania ez beste hizkuntzak galaraziz; eta 1902ko errege agindua aurrekoa biguntzen zuen araua zen (gaztelaniarik ez zekiten hurrei zuzentzean haien hizkuntzan hitz egiteko baimena emanaz irakasleei).

Hau da, Bizkaiko gobernadore zibilak oinarri juridiko faltuen gainean eraiki zuen bere zirkularra, aipatutako lege, dekretu eta arauetatik bakar batek ere ez baitzituen behartzen alkateak beren bandoetan edo bestelako udal-zereginetan gaztelania erabiltzera. Kurioski auzi hau azaleratu eta lehen egunetan inor ez zen aldrebeskeria juridiko hartaz ohartu. Izan ere, testua irakurrita, norik pentsa zezakeen gobernadoreak bere autoritate osoz esaten zuen hura ez zegoenik lege seguruen bermepena? Horrela, gobernadorearen zirkularra gaitzetsi zutenek ere hasieran ez zuten kuestionatu haren legezkotasuna, baizik kritikak zirkularren zilegitasunaren aurka joan ziren.

Seguruenik Bizkaiko gobernadorea bera ez zen ohartu lege-mailako hankasartze horretaz, jabetu izan balitz beste justifikazioen bat erabiliko baitzukeen (ala jabetu zen eta nahitara egin zuen prebarikazioa?). Argi dagoena da gobernadoreak beste iturri batetik kopiatu zituela bere zirkularrean aipatutako lege eta dekretuak, lehen biak jada ikusi dugun RAEren gutunean jasotakoak baitira

---

33. Hori da, adibidez, Lodaes (2000) moduko ikertzaileen ikuspegia.

34. Torrealdaireren liburu beltzak, adibidez, ez du jasotzen. Zirkular honen zeharkako aipu bat, hiru lerrokoa, Agirreazkuenagak (2003b: 234) egiten du, Bilboko Udalean sortu zuen eztabaidaren haritik, baina zirkularra bere baitan iruzkindu gabe.

(1857koa eta 1875ekoa), eta beste biak Romanonesek behinola emandakoak (1902ko dekretua eta haren arau osagarria). Hortaz, gobernadoreak iturri (ustez) autorizatuetatik kopiatu zuen, eta ziurrenik ez zen molestatu lege horien edukia konprobatzeaz. Gobernadorearen kopiaketaz, aldiz, bai ohartu ziren zirkularra kritikatu zutenak, berehala esango dugunez.

Lehenago, ordea, azken ohar batzuk egingo ditugu zirkularrari buruz. Batetik, zirkularrean inon ez zen aipatzen bando ofizialak euskaraz egiteko galarazpena goitik iritsi zenik (ez zen esaten «*por orden de la superioridad*» edo antzekorik). Aitzitik partikularren kexuak eta legea bete beharra aipatzen zituen justifikazio bakar gisa. Bestetik, zirkularrak euskarari hizkuntza ofizial izateko aukera ukatzearekin batera, hizkuntza-kondizioa bera ukatzen zion, *dialecto* deitzean. Soilik bigarren maila batean, gaztelaniaren erabilera ofiziala bermatu ostean, gobernadoreak aukera ematen zien udalei *modu pribatuan* euskara, itzulpen gisa, erabiltzeko.

Ikusten denez, gobernadorearen ikuspegian erakundeen zeregin *ofizialen* artean ez zegoen herritar guztiek ulertzeko moduan komunikatzea haiekin. Hori zeregin *ez-ofizial* bat izan zitekeen, *pribatua*. Bestalde, itzulpen pribatuak baimentzea, ez zen inolako ekintza eskuzabala: garai hartako espainiar konstituzioaren arabera herritar ororen oinarritzko eskubideen artean zegoen adierazpen-askatasuna<sup>35</sup>. Beraz alkate batek edo udal batek *modu pribatuan* adierazten zuena, beste edozein partikularrek adierazten zuena bezala, bere oinarritzko eskubideen parte zen. Hau da, gobernadoreak baimentzen zuena bere baimenik gabe ere egin zitekeena zen.

Zirkularren edukiarekin amaitzeko ohargarria da testuak Errestaurazio garaiko estatu-eredu hierarkikoa islatzen zuela, non ohikoa zen estatu horren ordezkariak jarrera autoritarioak agertzea. Kasu honetan gobernadore batek, legerberme seriorik gabe, aski zuen zirkular bat probintzia osoko alkateak bere esanetara jartzeko, eta hori nazio-interesaren izenean egiten zuen, estatuaren ustezko legea tokian tokiko edozein usadio edo behar praktikoren gainetik jarrita. Azkenik, ohar biografiko gisa, aipatzekoa da Alfredo Queipo de Llano, Bizkaiko gobernadore zibila, Gonzalo Queipo de Llano militarren anaia zela, hau da, urte batzuk geroago II. Errepublikaren aurka altxatu zen militar kolpistaren anaia.

### 3.2. Prentsaren eta alderdien erreakzioak

Gobernadorearen zirkularra Bizkaiko buletin ofizialean argitaratu zen egun berean, otsailaren 4an, *Euzkadi* egunkariak ere bere lehen orrian jaso zuen «Un bofetón del Sr. Llano» izenburupean<sup>36</sup>. Aurretik protesta hitz batzuk jarri zituen:

---

35. Errestaurazioko erregimen politikoa arautzen zuen 1876ko espainiar konstituzioak honela zioen 13. artikuluan: «*Todo español tiene derecho: De emitir libremente sus ideas y opiniones, ya de palabra, ya por escrito, valiéndose de la imprenta o de otro procedimiento semejante, sin sujeción a la censura previa*».

36. Cf. *Euzkadi*, 1916-02-04. Egunkari jeltzaleko testua eta buletin ofizialean agertutako bertsioa guztiz bat datoz (txikieria formal batzuen salbuespenaz: koma batzuk, maiuskularen bat, etab). *Euzkadi* egunkariak zalantzarik gabe bezperan eskuratu zuen testua, dirudienez, otsailaren 3an bertan argitaratu baitzen aurrenekoz arratsaldeko egunkariren batean (hala aipatzen zuen Kirikiñok bere «Egunekua» atalean, zein egunkaritan azaldu zen zehaztu gabe, ziurrenik *La Tarden*).

*El eminente lingüista Sr. Llano quiere, por lo visto, dejar huella de su paso en tierra bizkaina y tierra vasca. El señor Llano, al pretender atropellarnos desde las cumbres del Gobierno civil, quiere añadir el escarnio á la injusticia, para coronar dignamente su obra. He aquí la irritante circular, prohibitiva del uso de nuestro idioma patrio, en la que se injuria tranquilamente al euzkera, la vieja, la excelsa, la única lengua del vasco, llamándola dialecto*<sup>37</sup>.

Ondoren zirkularra zetorren. Zirkularra ikusita, *Euzkadi* egunkariak, bere kexua azaltzeaz gain, erronka egin zien Bilboko beste egunkariei, bereziki *La Gaceta del Norte* katoliko-kontserbadoreari, *El Pueblo Vasco* mauristari («*que querrá honrar su nombre*») eta *El Noticiero Bilbaino* berriemaileari, sarri esaten zuten bezala euskal gauzen zaleak baldin baziren, defenda zezatela haiek ere euskararen duintasuna gobernadorearen erabakiaren kontra («*estamos seguros de que [...] no gozará Euzkadi el triste privilegio de ser el único diario matutino que salga por los fueros de la dignidad vasca*»)<sup>38</sup>.

Egunkariaren zenbaki berean, lehen orrian, alderdi jeltzalearen Bizkai Buru Batzarrak (BBB) agiri ofizial bat argitaratu zuen uri buru batzarrei, batzokiei eta afiliatu guztiei zuzendua. Agiri horretan bizkaitar jeltzale guztien izenean, gobernadoreari protesta adierazten zion BBBk, Mundakan euskarazko pregoiak galarazteagatik eta ondoren Bizkai osorako egindako zirkularragatik. Halaber herrietako alderdikide eta zinegotziei eskatzen zien beren udaleko hurrengo saioan ahalegindu zitezela udalbatza osoaren adostasuna lortzen protesta-mozio bat onartzeko. BBBk Bizkaiko Diputazioko kide jeltzaleei ere erakunde hartan protesta tinkoa egiteko eskatzen zien; eta herrietako batzokiei eta afiliatuei euskararen alde mobilizatzeko. BBBk, gainera, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako alderdikideen laguntza eskatzen zuen, baita Kataluniako abertzaleena ere<sup>39</sup>.

*Euzkadi* egunkariak 1916ko otsail osoan zehar, kasik egunero, zirkularraren inguruko artikulu, albiste edo kritikak argitaratu zituen, ia beti lehen orrian. Gainera RAEren gutunaren aurkako katalan protestei ere oihartzun zabala eman zien. Katalanek antolatutako *Diada de la llengua catalana* ospakizunaren bidetik eta gobernadoreari eman beharreko erantzun gisa euskararen egun bat antolatzeko asmoa ere adierazi zuen. Asmo horrek ez zuen aurrera egin, baina euskararen aldeko gogoia mobilizatzeko aldera, Bilboko Euzko Gaztediak, *Euzkadi* egunkariaren babespean, *Euzkel laguntza* izeneko ekimen erraldoia abian jarri zuen otsailaren 14an: jendeari astero bost xentimo emateko konpromisoa eskatzen zitzaion euskararen alde erabiltzeko. Egun gutxiren buruan Euskal Herri osoko mila pertsona baino gehiago ari ziren ekimenean parte hartzen<sup>40</sup>. Zirkularraren aurkako protesta, beraz, afiliatu eta zale jeltzaleak mobilizatzeko abagune garrantzitsua izan zen.

Bilboko beste egunkariak ere agertu zuten beren iritzia zirkularraren inguruan, batzuek otsailaren 4an bertan. Artikulu guztiak banan-banan aztertu gabe, zuzenean joko dugu hurrengo eguneko artikulu batera, Bilboko *El Liberal* egunkari

---

37. "Un bofetón del Sr. Llano", *Euzkadi*, 1916-02-04 (letra etzanak jatorrizkoan).

38. "Estamos seguros", *Euzkadi*, 1916-02-04 (letra etzanak jatorrizkoan).

39. "Bizkai-Buru-Batzarra. II Idazki orokorra = Circular núm. 2", *Euzkadi*, 1916-02-04. Alderdiaren agirietan ohiko zenez, BBBren hau ere elebitan argitaratu zen.

40. Cf. "Una idea práctica", *Euzkadi*, 1916-02-14, eta hurrengo egunetako albiste ugariak "Euzkel laguntza" ekimenari buruz.



errepublikazale-sozialistaren artikulura. Izan ere, bertan beste egunkarien iritziak ederki laburbiltzearekin batera, bere iritzi propioak ere jasotzen zituen. *El Liberaleko* artikulua, «Campaña bizkaitarra» izenburupean, honela hasten zen:

*Ignoramos hasta que punto estará dispuesto el Sr. Queipo de Llano a dejarse arrollar por el Bizkai-Buru-Batzarra. So pretexto de salir a la defensa de la lengua vasca, por nadie agraviada, los bizkaitarras han encontrado la ocasión de romper las hostilidades con el Poder central [...] Y al grito de ¡Gora el euzkera! quieren sublevar a los Ayuntamientos de Vizcaya contra el gobernador civil de la provincia.*

*Hiciéranlo con el recto propósito de defender libertades y autonomías, afirmando la personalidad propia de esta región y pidiendo respetos para todo lo que la constituye, y nadie tendría nada que oponer a las excitaciones que hiciera el Bizkai-Buru-Batzarra en uso de su perfecto derecho.*

*Pero está bien claro que falta rectitud en el propósito y nobleza en el procedimiento. Dice la circular bizkaitarra, a que nos referimos: «El Bizkai-Buru-Batzarra [...] protesta [...] de la circular prohibitiva de los pregones euzkéricos [...]».*

*Después de las explicaciones que dió ayer el Sr. Queipo de Llano, ¿hay derecho a decir que la circular gubernativa prohíbe los bandos y pregones en euzkera?*

*Contesta por nosotros La Gaceta del Norte con estas líneas: «El gobernador no prohíbe el empleo del euzkera en la redacción de bandos ni en la publicación de pregones, sino que ordena que se haga en castellano y autoriza a que se adose a ellos la traducción pertinente en vascuence».*

*Y de El Noticiero Bilbaino, son estas otras: «En Mundaca se venía usando el euzkera por la autoridad local y vecinos que desconocen la lengua nativa se quejaron y solicitaron el cumplimiento de la ley, a lo que se vió obligado el gobernador. Pero esta autoridad concedió la debida autorización para que se hiciera la traducción al vascuence [...] No vemos, por consiguiente, motivo para alarma, puesto que no se prescinde del vascuence, no se le destierra» [...]*

*Queda, pues, reducido a una impostura el fundamento de la circular del Bizkai-Buru-Batzarra [...]*<sup>41</sup>.

*El Liberal* egunkariaren artikulua horrek ukatu egiten zuen espresuki euskararen kontra inork ezer egin zuenik («la lengua vasca, por nadie agraviada»). *La Gaceta del Norte* eta *El Noticiero Bilbaino* egunkariak esandakoaren ildotik, gobernadoreak egin zuen bakarra gaztelaniaren ofizialtasun legala betearaztea izan omen zen, baina euskara galarazi gabe, itzulpenak egiteko baimena ematen baitzuen. Izatez, sortu zen polemika ikusita, gobernadoreak berak azalpenak eman beharra sentitu zuen, eta kazetariei adierazi zienez: «*Nunca estuvo en mi ánimo el perseguir, ni menos el desterrar, el uso del vascuence*»<sup>42</sup>. Horregatik, *El Liberalek* gai hau tratatzen bazuen jeltzaleen gezurra salatzekeo zen, ez euskararen gaia bere baitan asko ardua zitzaiolako. Salaketa horretan gobernadore zibilarri gogor erantzuteko intsinuazioa ere ikus daiteke («*hasta que punto estará dispuesto el Sr. Queipo de Llano a dejarse arrollar por el Bizkai-Buru-Batzarra*»). Alde horretatik *El Liberaleko* artikulua garaiko lehia alderdikoaren testuinguruan kokatu beharra

41. "Campaña Bizkaitarra. La circular del B.-B.-B.", *El Liberal*, 1916-02-05 (letra etzanak jatorrizkoan).

42. "De enhorabuena", *Euzkadi*, 1916-02-11.

dago. Bilbo aldean konjuntzio errepublikazale-sozialista batetik eta jeltzaleak bestetik elkarren kontra oso gogor ari ziren, eta bando bakoitzaren prentsak edozein gai erabiltzen zuen arerio politikoa deskalifikatzeko eta nabarmen uzteko. Baina, norgehiagoka alderdikoietatik haratago, polemika baliagarria da *El Liberalek* euskararen gaia nola tratatzen zuen ikusteko.

Egun bereko *Euzkadi* egunkariak, lehen orrian, «Arbitrariedad insostenible» izenburupean, datu berriak eman zituen gaiaz. Batetik beste egunkarien erreakzioak aipatzen zituen, eta ondoren zehaztapen batzuk egiten zituen Mundakan gertatutakoaz:

*[...] entienden los otros [periódicos] que aquí no sólo no ha ocurrido nada, sino que, por obra de Queipo, se podrá realizar «una labor plausible en favor del idioma vascongado, con la traducción de los bandos» —es el parecer del Noti[ciero Bilbaino], el de los intereses vasco-navarros—; ó que en el fondo de esto no se ve más que «un síntoma de que el gobernador ha sido mal aconsejado», según declara La Gaceta del Norte en unas líneas breves, porque no tienen «calma y espacio».*

*Disentimos del parecer de esa prensa y del gobernador civil [...]*

*Cuando los bandos de las autoridades locales se redactan en idioma que no es el español, habrá infracción de las injustas leyes dadas para ahogar las lenguas populares. Si el señor alcalde de Mundaka hubiera redactado en euzkera sus bandos, pudiera haber intervenido, legal, aunque antijurídicamente, el señor Queipo, prohibiendo esa práctica, que, para nosotros, es natural, legítima y santa. Pero no ha sucedido esto. Y por ello ha faltado al gobernador civil todo pretexto legal que disimulara su vascofobia.*

*[...] En español se redactaban en Mundaka los bandos y se exponían al vecindario, que, en su mayoría, no lo entiende [...] Y con ello quedaba cumplida la ley española, que es, ya se ve, compendio de cordura y sentido práctico.*

*Mas como no se conseguía con este homenaje á la ley española el requisito de promulgación y el conocimiento [alegia herriko jendeari jakitera ematea], [...] el digno señor alcalde de Mundaka se valía de pregoneros que á viva voz, en el habla del pueblo, y no en txequé, dieran cuenta de las resoluciones municipales, cuya publicidad era indispensable sin que ello se opusiera á que el bando redactado en español flameara en la soledad [...] [y] sin que redactara una hoja de papel en euzkera. [...] Sin embargo el señor alcalde de Mundaka ha sido amonestado y amenazado. [...]*<sup>43</sup>

Ikusten denez, Mundakan bandoak gaztelania hutsez idazten ziren, eta ondoren halaxe jartzen ziren toki publikoan. Baina mundakar gehienak euskaldun elebakarrak izanik, bandoaren edukia herritarrek ere uler zezaten pregoilari batek euskaraz esaten zuen. Horrela, bada, Mundakako Udalak bere jakinarazpen ofizialetan elebitasun funtzional batekin jarduten zuen: idatzizkoa gaztelaniaz (bandoa), eta ahozkoa euskaraz (pregoia). Euskal Herrian mende luzez oso arrunta izan den eredu bestalde. Hala ere, gaztelaniazko bandoak toki publikoan ikusgai egon arren, gobernadoreak errieta egin zion alkateari.

*Euzkadi* egunkariak zioen idatzizkoa gaztelaniaz egotearekin espainiar legea aise betetzen zela, eta alde horretatik gobernadorea legea baino urrunago joan

43. "Arbitrariedad insostenible", *Euzkadi*, 1916-02-05 (letra etzanak jatorrizkoan).

zela. Egia esan zaila da auzia ikuspegi legaletik epaitzea, ikusi dugunez gobernadoreak bere zirkularrean aipaturako lege bakar batek ere ez baitzuen zehazten ezer bandoen eta pregoien hizkuntzari buruz, eta guk dakigula egon ere ez zegoen espainiar legedian arau zehatzik horretaz.

Printzipioz, *Euzkadiren* arrazoibideak badu logikarik, hizkuntza ofizialak normalean idatzizko agiriei baitagozkie, eta alde horretatik oso deigarria da estatu-ordezkarri bat herri txiki bateko ahozko usadio bat arautu nahian sartzea. Horrela ikusita zalantza egon liteke gobernadoreak hasieran ez ote zuen oker ulertu, hau da, ez ote zuen pentsatu Mundakan bandoak eta pregoiak, biak, euskara hutsez idazten eta esaten zirela, eta ez ote zuen, uste oker horretan oinarrituz, abiatu bere kanpaina<sup>44</sup>. Aukera hori ezin bazter daiteke, baina Mundakako egoera gaizki ulertu zuela suposatuta ere, seguru esan liteke gobernadoreak ez zela konformatzen bandoak erdaraz idaztearekin, eta ahozkoan bertako usadioa errespetatzearekin: auzi honen inguruan *Euzkadin* azaldu zen lehen albistean informatzaileak argi eta garbi zioen gobernadoreak *pregoietan*, hau da *ahozkoan*, behartu zuela alkatea erdara erabiltzera («*le obliga, desde el último sábado, á que los pregones se digan en erdera*»). Eta egun batzuk geroago agertu zen zirkularrak ere argi zioen bai bandoa eta bai pregoia, biak, gaztelaniaz egin behar zirela, biak baitziren ekintza ofizialak.

Gobernadorearen zirkularrak ondoren aukera ematen zuen, ekintza ez-ofizial gisa, bandoen zein pregoien edukia euskaraz ere jartzeko. Baina aurretiaz gaztelaniaz egin zirela bermatu ondoren. Hau da, gaztelania derrigorra zen bai idatziz eta bai ahoz, eta aldiz euskara ez zen derrigorra ez idatziz ez ahoz (soilik aukerakoa). Alde horretatik *Euzkadi* zuzen zebilen *galarazpen* hitza erabiltzean, zeren pregoi *ofizialetan*, hau da, pregoi izena merezi zuten bakarretan, gobernadoreak galarazi egin zuen euskara erabiltzea. Gaztelaniazko pregoiaren ondoren eman zitekeen euskarazko azalpena jada ez zen pregoia izango, ekintza ez-ofizial bat baino, pribatua, formalki ezin dei zitekeena pregoi. Izatez, *Euzkadi* egunkariak, euskarazko pregoiak babestu nahian, aditzera ematen zuen ahozko pregoiak ez zirela ekintza ofizialak, jarduera informalak baino, eta hori ezin zuela gobernadoreak arautu.

*Euzkadi* egunkariko artikulua berean pregoi eta bandoen kontuak RAEren gutunarekin zuen lotura aipatzen zen:

*El acto [...] prohibiendo que se sigan dictando en Mundaka bandos [sic] en euzkera [...] ha coincidido con la publicidad del texto de la reclamación que ha dirigido el director de la Real Academia Española, don Antonio Maura Montaner [...] No sabemos que el gobernador civil de Bizcaya haya recibido instrucciones del Gobierno español, en el sentido de la injusta reclamación del señor Maura; pero es más que probable que así haya ocurrido, y que á las excitaciones del Gobierno español se hayan unido las de un caballero de Mundaka, cuyo antieuzkerismo habrá sido avivado por la lectura del escrito de Maura, dado á conocer estos días en la prensa de Madrid. [...]*<sup>45</sup>

44. «El señor gobernador civil de Bizcaya ha prohibido al alcalde de Mundaka que los bandos ó pregones sean dados en euzkera» esaten zen *Euzkadi* bertako lehen albistean (1916-02-02koan), itxura emanez gauza biak egiten zirela orduraino euskaraz.

45. "Arbitrariedad insostenible", *Euzkadi*, 1916-02-05 (letra etzanak jatorrizkoan).

*Euzkadiko* artikuluan zehazten zen bezala RAEk bere gutunean salatzen zituen ekintzen artean *dialektoan* idatzitako *bandoak* zeuden. Eta horrez gain, jada ikusi dugunez, gobernadorearen zirkularrak zehazten zituen legeak ere RAEren gutu-netik hartuta zeuden (orobat beste gauzatxo batzuk, adibidez «*Centros oficiales*» esamoldea administrazioko erakundeak aipatzeko). Horrek argi uzten du loturaren bat egon bazegoela RAEren gutunaren eta gobernadorearen zirkularraren artean.

Hala ere, nabarmentzekoa da gobernadore zibilaren zirkularra RAEren gutuna bera baino gogorragoa zela. Izan ere, RAEren gutunak ez zituen aipatzen pregoiak (ahozkoak), baizik soilik bandoak (idatzizkoak). Gainera RAEk, bere kexuan, zioen jatorriz *dialektoan* idatzitako agiri ofizialek gaztelaniazko itzulpena izan beharko luketela aldamenean; aldiz, gobernadore zibilak ez zuen esaten jatorriz euskaraz idatzitako agiri batek gaztelaniazko itzulpena izan beharko zukeela aldamenean, baizik agiri ofizialak gaztelaniaz idatzi behar zirela jatorriz, eta gero, nahi izatera, euskarara itzul zitezkeela modu pribatuan.

Orain arte ikusitakotik ondorioztatzen da Bizkaiko gobernadorearen zirkularraren atzean lau eragile posible zeudela. Lehenik, bazitekeen Mundakako jauntxo bat egotea, euskarazko pregoien aurka lehen ere salaketak jarri zituena. Bigarrenik, RAEren gutuna zegoen, Espainiako gobernuari zerbait egin zezala eskatzen ziona. Hirugarrenik, Espainiako gobernuak ere egon zitekeen agian RAEren gutunaren ildoko aginduak eman zituena. Eta laugarrenik gobernadorea bera, zirkularraren arduradun nagusia.

Mundakako jauntxo partikularren salaketa gertatu izana oso litekeena da, zirkularrean bertan aipatzen baitzen ugariak zirela gisa hartako kexuak, eta ez baitirudi gobernadoreak bere kabuz abiatuko zuenik Mundakako alkatearen aurkako salaketa. RAEren gutunak eragina izan zuela ere agerikoa da gorago esandakoagatik. Zalantza da ea Espainiako gobernuak, hau da, Romanonesen gobernuak, zuzenean instrukziorik helarazi ote zien gobernadoreei, tartean Bizkaikoari, RAEren salaketak *in situ* konprobatu eta zigortu zituzaten.

Auziak badu interesik, katalan historiografiak behintzat ez baitu aipatzen Romanonesek RAEren mezuari kasu egin zionik (esan nahi da ildo horretako errepresio-neurri berezirik hartu zuenik). Izatez katalan historiografiak dio RAEk porrot egin zuela bere asmoan, ez baitzuen lortu Espainiako gobernuak zuzenean mugiarazterik<sup>46</sup>. Alde horretatik, Bizkaiko kasuak kontrakoa erakutsi lezake. Lastima da *Euzkadi* egunkariak ez jasotzea Mundakako alkateari gobernadoreak helarazi zion lehen agindua, horrek gauzak argitzen lagunduko bailuke<sup>47</sup>.

---

46. «*Després de gairebé tres mesos de polèmica, en fi, es feia evident que la comunicació de la RAE havia caigut en el buit: s'havia trobat, d'una banda, amb la prudència del govern i, de l'altra, amb el rebuig de les corporacions públiques i privades catalans*» (Grau, 2004: 290).

47. Izan ere, alkateari helarazitako kargu-hartzea 1916ko urtarrilaren amaierakoa da, RAEren gutuna prentsan argitaratu aurrekoa (otsailaren 1ean agertu zen). Eta kargu-hartze hartan, ondorengo zirkularrean bezala, 1857ko legea eta 1875ekoa aipatuko balitu gobernadoreak, horrek argi erakutsiko luke gobernadoreak goitik jaso zuela RAEren ildoko instrukzioren bat, gutuna ordura arte hezkuntza-ministroaren esku baino ez baitzegoen. Guk ez dugu Mundakako udal-artxiboa arakatu, baina baliteke bertan egotea jatorrizko kargu-hartzea. Gero otsailaren 3an egin zen zirkular orokorrak ez du auzia argitzeko balio, zeren hura atera zenerako jada RAEren gutuna prentsan publikatua zegoen. Beraz gobernadoreak, lehendik ezagutzen ez bazuen, prentsan ikusi eta handik kopia zezakeen.

Hortaz aukerak bi dira: edo (a) gobernadoreak, RAEren gutunaren berri izan aurretik, Mundakako alkateari bere salaketa jarri zion, eta ondoren, RAEren gutuna publiko egin zelarik, hura pizgarri izan zitzaion Bizkai osorako zirkularra idazteko; edo (b) Espainiako gobernuak 1916ko urtarrilean Espainiako gobernadore zibilei instrukzioak eman zizkien, RAEren gutunaren ildoan, eta horien bermepean ekin zion gobernadoreak Mundakako alkatearen kontra lehenik, eta Bizkai osoko alkateen kontra ondoren.

Espainiako gobernuaren jarrera zein zen jakin nahian Bilboko Centro Vasco elkarte jeltzaleak telegrama bat bidali zion Romanonesi. Hark beste telegrama batekin erantzun zien (prentsan argitaratu zena): «*Criterio Gobierno uso lenguas regionales se encuentra reflejado telegrama dirigido Mancomunidad catalana. Presidente del Consejo de Ministros*»<sup>48</sup>. Ikusten denez, Romanonesek ez zuen ezer zehatzik esaten, baina badirudi eskuak nolabait garbitu nahi zituela. Alde horretatik, irudi luke Queipo de Llano bere kabuz aritu zela Bizkaian, Romanonesen telegraman behintzat ez baitzuen babes espliziturik jaso (baina ezta desautorizaziorik ere). Kontuan hartu behar da, Romanonesek bere telegrama idatzi zuenerako Bizkaian protesta ugari izan zirela gobernadorearen kontra (berehala aipatuko ditugunak), eta gainera Kataluniatik ere erakunde asko kezaka ari zirela RAEren gutuna zela-eta. Hortaz, Romanonesek Bizkaiko aferan erantzukizun zuzenik izan edo izan ez, handiagotara ez joatea erabaki zuen. Alde horretatik, argi jakin gabe segitzen dugu ea gobernadorea bere kabuz aritu ote zen ala goragotik bultzatuta<sup>49</sup>. Seguru esan liteke, aldiz, RAEren gutuna ez zela izan eragin gabea Euskal Herrian, gutxien-gutxienez gobernadore zibil baten galarazpena indartzeko balio izan baitzuen.

Kurioski Bizkaiko egunkari mauristak, *El Pueblo Vasco*, ez zion babesik eman gobernadoreari ekintza hartan, nahiz zirkularra Maurak sinatutako RAEren gutunean inspiratu. Otsailaren 5eko artikulu batean, honela zioen *El Pueblo Vasco*:

*Admitiendo que el gobernador civil no haya querido inferir agravio alguno al idioma vasco —y no dialecto, como con lamentable ofuscación, decía en su circular— [...] [p]ara nosotros no es lo más grave la circular dictada, con crearla innecesaria, censurable y extemporánea [...] más que la circular en sí, el daño está en el precedente que sienta y en lo que tiene de síntoma.*

Baliteke mauristek, laster etortzekoak ziren Espainiako hauteskunde orokorrei begira, jeltzaleen botoak eskuratu nahi izatea<sup>50</sup>, eta horregatik kritikatzera gobernadorearen zirkularra. Bestalde, gobernadorea Romanones liberalaren zerbitzuan ari zen, hortaz ez zen «beraietakoa» eta ez zioten leialtasunik zor. Nolanahi ere, mauristen kritika ez zen oso gogorra: zirkularra desegokitzen zuten, baina sakonean ez zitzairen oso larria iruditzen, ezta asmo txarrez egina ere. Artikulu berean aipatzen zuten gobernadoreak bide hartatik segituz gero euskal gizarte osoaren protesta entzun beharko zuela. Baina momentuz ez zuten protesta aktiborik egingo. Horretan ari ziren bakarrak jeltzaleak ziren.

48. Jasoa in "El euzkera y la circular del gobernador", *Euzkadi*, 1916-02-10.

49. Akaso Bizkaiko gobernu zibileko artxiboetan izango da zerbait honetaz. Baina guk ez ditugu kontsultatu.

50. Gipuzkoan, adibidez, 1916ko hauteskunde haiei begira izan ziren halako aliantza batzuk jeltzale eta mauristen artean (cf. Aizpuru, 2000: 393).

Bizkaiko beste egunkari batzuei jeltzaleen protestak eurak gehiegizkoak iruditu zitzaizkien. Horrela, *Euzkadi* egunkariak eman zituen azken azalpenak (Mundakan bandoak gaztelaniaz idazten zirela, euskarazko bakarra ahozko pregoia izanik) ez ziren aski izan *El Liberal*, *La Gaceta del Norte* eta beste egunkari batzuk konben-titzeko. *La Gaceta del Nortek*, kritika xumeren bat egin zion gobernadoreari, baina segitzen zuen aipatzen Mundakan bandoak euskaraz idazten zirela, eta jeltzaleek afera exajeratu zutela. Gogorragoa zen, ohi bezala, *El Liberal* erre-publikazale-sozialista. Horrela, otsailaren 11ko artikulua batean, zinegotzi jeltzaleek Bilboko Udalean aurkeztutako protesta-mozioa salatzen zuen, gobernadoreak ez zuela euskara galarazi argudiatuta:

*¿Cómo pueden continuar diciendo que se prohíbe hacer la pregonación pública en euskera? No parece sino que para reconciliarse con el vascuence, éstos capitulares [zinegotzi jeltzaleei buruz ari da] que no lo hablan, que no lo escriben, que no lo estudian, ni siquiera lo entienden, hacen como que tampoco comprenden el castellano. ¿En qué patuá, en que dialecto, idioma o jerga habrá que hablarles? [...] Está bien clara, señores, la circular del gobernador. Insistimos en ello, no tanto por defender al Sr. Queipo de Llano, que no necesita de nuestra defensa, ni es cosa de nuestra incumbencia hacerla, como para impedir que comulguen con ruedas de molino los lectores de esa prensa bizkaitarra que fomenta con imposturas el separatismo en Vizcaya. [...]*

*Merece más atención la [moción] que suscriben los jaimistas [...] No van en ella contra la circular gubernativa, sino contra el autor o autores de las denuncias y quejas que se hicieron al gobernador; y piden a la Diputación que recabe de los Poderes públicos un proyecto de ley o un real decreto declarando que el vascuence es español, aunque no sea lengua oficial, ni por tanto obligatorio en toda la nación. Esto último nos parece más puesto en razón que lo primero. No puede negarse a los vecinos de Mundaca el derecho a pedir que se redacten en castellano los bandos y pregones oficiales. Si no fuera bien conocido el acendrado españolismo de los capitulares [jaimistas] que suscriben esa moción, darían lugar a que pudiera entenderse que trataban con ella de proscribir en Mundaca el idioma nacional.*

*Está muy en su punto, sin embargo, la declaración de que el habla vascongada es española, tan española como el pequeño territorio en que, por los siglos de los siglos, viene perpetuándose el vascuence. Pero no hace falta para que continúe siéndolo ninguna ley, ni decreto alguno, porque Vasconia, con su lengua venerable, con sus usos y costumbres, con todo lo que es y significa en el pasado y en el presente, forma parte de la nación española<sup>51</sup>.*

Ikusten denez, *El Liberalek*, jeltzaleen salaketak faltsu gisa arbuiaitu ondoren Bilboko zinegotzi jaimisten (karlisten) alternatiba aipatzen zuen. Jaimistek ez zuten eskatzen euskara ofizial bihurtzerik, soilik estatuak aitortza sinboliko bat egitea, espainiar hizkuntza deklaratu. *El Liberal* ideia horretan bat zetorren, baina ez zuen beharrezko ikusten inolako lege-aitortzarik, beretzat legerik gabe ere euskara, Euskal Herria bezala, esentzialki espainola baitzen, eta zentzu horretan errespetagarria («*lengua venerable*»). Horretan jaimistak, hau da, tradizionalismo katolikoaren defendatzaileak zein *El Liberal* egunkari ezkertiarra bat zetozen, eta oroituzko ideiak aipatzen zituztela RAEren gutunak zein Romanonesek Mankomunitateari bidalitako telegraman.

51. "El vascuence es español", *El Liberal*, 1916-02-11.

Bestalde jaimistek Mundakako salaketa anonimoen berri jakin nahi zuten, eta hor *El Liberal* gaztelaniadunen eskubide linguistikoen alde atera zen: «*No puede negarse a los vecinos de Mundaca el derecho a pedir que se redacten en castellano los bandos y pregones oficiales*». *El Liberalek*, lehenago *El Noticiero Bilbainok* bezala, auzia mundakar askoren (gehienen?) funtsezko eskubide gisa aurkezten zuen («*los vecinos*»), ordura arte euskararen erruz eskubiderik gabe bizi izan balira bezala. Baina oroituz salaketa egin zuena, ustez, pertsona bakar bat izan zela, Mundakako jauntxo bat. Kexu horren babes sozialaren urria argi berresten du aurreko urteko gertaerak, *Euzkadi* egunkariak kontatu zuen hark: «*Siendo alcalde de Mundaka un caciquista, cierto individuo se acercó á aquella autoridad, llamándole la atención sobre los bandos y el señor alcalde de entonces le despachó con cajas destempladas*». Hau da, alkate dinastikoek ere ez ziotela kasurik egin jauntxo hari, bere eskaerak ez baitzuen zentzu praktikorik Mundaka moduko herri euskaldun batean. Hala ere, *El Liberal* ez zen kezkatzen gaztelaniaren eskaria egin zutenak Mundakan asko ala gutxi ote ziren ikertzeaz, eta izatez gaizki zeritzon jaimistek eskatu bezala salaketen atzean nor zegoen arakatzeari ere. Izan ere, *El Liberalen* ikuspegiari gaztelaniaren eskubideak froga beharrik gabekoak ziren, gaztelania *hizkuntza nazionala* baitzen, ezin *proskribitu* zitekeena ez Mundakan ez inon.

Eta azpimarratzekoa da jarrera hau guztia *El Liberalek* ez zuela aurkezten Queipo de Llanorekiko sinpatia berezirik zuelako («*que no necesita de nuestra defensa, ni es cosa de nuestra incumbencia hacerla*»). Aitzitik, sakoneko bateratasun ideologiko batean oinarritzen zen. Gorago aipatu dugun Espainiako kontsentsu linguistikoa zabalaren adibidetzat har dezakegu.

Kurioski *El Liberal* egunkarian bestelako ikuspegiaren bat ere azaldu zen. Horrela, otsailaren 12an, Rafael Pérez Barreiro-k sinatutako iritzi-artikulu batek, RAEren gutuna kritikatzeko zuen. Egileak zioen bera gaztelar jatorrikoa zela, baina hala ere ez zuela gaizki ikusten katalanek, galegoek eta euskaldunek beren hizkuntza erabiltzea («*¿Qué mal nos hacen con no hablar castellano?*»). Izatez artikuluak espainolismo topikoa salatzen zuen (Pelayo, *El Cid*, etab)<sup>52</sup>. Iritzi hori, ordea, salbuespen indibidual gisa hartu beharra dago. *El Liberalen* lerro editoriala ez zihoan bide horretatik.

Beste adibide bat handik egun gutxira iritsi zen, Bilboko jeltzale gazteek *Euzko-Deya* izenburuko aldizkariaren lehen alea atera zutenean, oso-osorik euskaraz idatzia. Aipatzekoa da, aldizkari horren publikazioak ez zuela zerikusirik ez gobernadorearen zirkularrarekin, ez RAEren gutunarekin: polemika hura lehertu baino bi hilabete lehenago, 1915eko azaroan eta abenduan, *Euzkadi* egunkarian maiz aipatu zuten aldizkari berria laster ateratzekoa zela<sup>53</sup>. Azkenean 1916ko otsailaren 16an ikusi zuen argia lehen zenbakiak. *El Liberalek*, ordea, hurrengo eguneko artikulu batean, gobernadorearen aferarekin lotu zuen:

---

52. Cf. "Los idiomas nacionales", *El Liberal*, 1916-02-12.

53. Cf. *Euzko-Deyaren* iragarpenak in "Por la lengua nacional!", *Euzkadi*, 1915-11-28; "Euzkeltzale Bazkuna", *Euzkadi*, 1915-12-02; "Acerca del periódico euzkerico", *Euzkadi*, 1915-12-10; "Egunekua", *Euzkadi*, 1915-12-18; etab.

*Sigue dando guerra la cuestión de los idiomas, y por lo que respecta a Bilbao, tanto preocupa a los nacionalistas, que ayer lanzaron a la calle un periódico escrito todo él en vascuence, hasta los anuncios. Nunca me he llevado mayor chasco que al comprar el periódico, llevado por mi mucha curiosidad por todo lo que sea letra impresa. Por más vueltas que dí a las páginas de un lado para otro no conseguí enterarme del contenido del papel, renegando de mi ignorancia en cuanto al idioma, dialecto o lo que sea el vascuence, que tampoco a cuenta de este tema se han puesto de acuerdo los lingüistas y filólogos que han metido la cuchara en este pleito. [...]*

*Ahora, y para dar quehacer al señor gobernador y al señor fiscal, los nacionalistas editan este periódico, que parece publicarse con el exclusivo objetivo de que se creen algunas plazas de intérpretes que traduzcan a las autoridades los conceptos en vascuence. Sin embargo creo que todo ello no pasa de una broma dedicada al gobernador, pues en ese papel deben decirse cosas atroces contra la primera autoridad civil. [...]<sup>54</sup>.*

*El Liberaleko* artikulu hau Teodosio Mendive egunkariko zuzendariak sinatzen zuen. Egunkariaren lerro ofizialaren agerpen garbia zen beraz. Artikulua, lehenago ere ikusia dugun bidetik, euskararen hizkuntza-izaera zalantzan jarriz hasten zen («*idioma, dialecto o lo que sea el vascuence*»). Ondoren Mendivek euskaraz idatzitako aldizkaria susmopean jartzen zuen, gobernadorearen aurka propio egindako txantxa zelakoan eta bertan haren lepotik izugarrikeriak esango zirela suposatuz («*en ese papel deben decirse cosas atroces contra la primera autoridad civil*»). Izatez, jeltzaleen aldizkaria agintariei zeregina ematearren egindako asmo txarreko lana baino ez litzateke, artifizialki itzultzaile plazak sortzeko egina, eta gobernadoreak ez ezik fiskalak ere aztertu beharko luke. Argudio horrek gogora dakar Royo senatariaren beste iritzi hura, katalanek beren hizkuntza zerabilteela propio gaztelaniadunak molestatzearren<sup>55</sup>.

*El Liberaleko* zuzendariari ez zitzaion burutik pasatzen euskara bere baitan landu zitekeenik. Edo lantze hori positiboa izan zitekeenik. Euskaraz zetorrena mesfidantzaz hartzen zuen *a priori*, eta gainera agintarien fiskalizazio-lanari dei egiten zion. Horrek argi erakusten du nolako liskar-giroan aritu behar zuten garaiko euskaltzaleek, beren edozein jarduera, xumeena izanik ere (euskarazko pregoi bat, euskarazko aldizkari bat), aise jazarri baitzezaketen agintariek, edozein salaketa partikular tarteko.

Mendiveren artikuluan gaztelaniaren aldeko diskurtso gailenaren topiko gehiago ere aipatzen ziren, baina ez ditugu azalduko. Ikusitakoarekin nahiko argi geratzen da Bizkaiko egunkari bakoitzaren jarrera zein zen: *Euzkadi* jeltzalea hasieratik jarri zen gobernadorearen galarazpenen aurka; *El Liberal* errepublikazale-sozialistak bat egin zuen zirkularraren mamiarekin; eta beste egunkariak (*El*

54. "La jerga nacional", *El Liberal*, 1916-02-17.

55. Nabarmentzekoa da *Euzko-Deyaren* sorrerak gobernadorearen kontuarekin zerikusirik ez izateaz gain, lehen zenbakian ez zuela haren aurka ezer larririk esaten: egon bazegoen artikulu labur bat zirkularra kritikatu, baita bineta umoretsu bat ere herri euskaldunetan pregoia gaztelaniaz egitearen zentzugabekeriaz. Baina artikulu horretan ez zen Queipo de Llanoren kontra irain pertsonalik edo antzeko gauza gogorrik azaltzen (cf. "Euzkerearen kaltez", *Euzko-Deya*, 1. zk., 1916-02-15, 3.-4. or.). Gainera aldizkariak hainbat urtez iraun zuen, bere izatea ez baitzegoen lotuta polemika koiuntural harekin (*Euzko-Deyaren* ibilbideari buruz gehiago in Kintana Goiriena, 2005: 165-168).



*Pueblo Vasco* maurista, *El Noticiero Bilbaino* «apolitikoa» eta *La Gaceta del Norte* katolikoa), nolabait erdibidean kokatzen ziren, hitzez euskararen alde baina ekintzetan gobernadorearen erabakiei garrantzia handirik eman gabe, kritika txikiren bat gorabehera. Auzi honen epizentroa Bizkaian egonenez bertako prentsa ikertu dugu. Interesgarria litzateke beste euskal herrialdeetako egunkariaren erreakzioak ere ikustea. Baina hemen ez dugu egingo.

### 3.3. Erakunde publikoen erantzuna: udalak eta Bizkaiko Diputazioa

Polemika prentsan gauzatzeaz gain erakundeetan ere izan zuen isla. Ikusi dugunez, alderdi jeltzaleak bere zinegotziei eskatu zien udaletan protesta-mozioak aurkezteko. Eta emaitzak berehala iritsi ziren, seguruenik beste alderdi batzuetako zinegotzien sostenguarekin. Horrela, otsailaren 8ko *Euzkadi* egunkariak Mundakako udalaren erabakia azaltzen zuen, aho batez onartua eta hiru puntutan berezia:

*PRIMERO. Causar respetuosamente la más enérgica protesta por la circular prohibitiva de los pregones euskéricos, considerándola atentatoria á los derechos naturales del pueblo vasco.*

*SEGUNDO. Que los edictos y bandos que hasta ahora se redactaban en castellano, exclusivamente, vengán en lo sucesivo acompañados de su traducción en euzkera.*

*TERCERO. Elevar á la Excma. Diputación de Bizcaya respetuoso mensaje en súplica de que, recogiendo el clamor popular pro-euzkera, interponga su valioso prestigio ante los Poderes Públicos, dando forma práctica y eficaz al anhelo público<sup>56</sup>.*

Hurrengo egunean Bermeoko udalean oso antzeko erabakia hartu zuten: batetik gobernadoreari protesta agertu zitzaion zirkularragatik, eta bertan behera uzteko eskatu; bestetik, aurrerantzean udalaren bandoak elebitan argitaratzeko asmoa azaldu zen, eta, azkenik, Diputazioari esku hartzeko eskatzen zitzaion euskararen alde. Laugarren erabaki bat ere bazegoen: Bermeoko karmeldar mosen ikastetxeari eskatzen zitzaion, udalaren subentzio oparoak jasotzen zituenez, aurrerantzean eskaini zezala egunero euskarazko irakurketa-klase bat eta erlijio-platketan ere euskara erabil zezatela ikasleek<sup>57</sup>.

Mundaka eta Bermeoko udalen ondoren, hurrengo egun eta asteetan, beste herri batzuetan antzeko mozioak onartu ziren, *Euzkadi* egunkariak bere orrietan jasotzen zituenak. Horrela, protesta egin zuten udallerrien artean, Bizkaian, Zea-nuri, Ondarroa, Lekeitio, Igorre, Gueñes, Zamudio, Elantxobe, Galdakao, Areatza eta Mendexa kontatu ditugu; Gipuzkoan, Andoain, Mutriku, Hondarribia, Tolosa, Errenteria, Soraluze, Azkoitia eta Zumarraga (hemerrotekako hutsak tarteko baliteke herri gehiago ere izatea<sup>58</sup>). Mozio horietako askotan, lehenik gobernadorearen edota RAEn gutuna salatzen zen, eta ondoren udalak asmoa azaltzen zuen gaztelaniaz idatzitako bandoen alboan aurrerantzean euskarazko itzulpena

56. “¡Honor á Mundaka! Seamos dignos”, *Euzkadi*, 1916-02-08.

57. Cf. “La protesta de los ayuntamientos”, *Euzkadi*, 1916-02-09.

58. Kontsultatu dugun *Euzkadiren* bilduma Bizkaiko Foru Bibliotekakoa da, eta bertan, besteak beste, otsailaren 20-25 arteko zenbakiak falta dira.

jartzeko<sup>59</sup>. Protesta agertu zuten udalerrri guztiek, ordea, ez zuten bando elebidunen aukera egin. Lekeitioko udalak, adibidez, gobernadorearen zirkularra salatu ondoren, zioen lehen bezala segituko zuela, bandoak gaztelaniaz idatziz eta ahozko pregoia euskaraz eginez. Beste udal batzuek, berriz, protestatik haratago ez zuten ezer konkreturik esaten hizkuntzen erabilerari buruz, eta uste izatekoa da lehen bezala segituko zutela<sup>60</sup>. Herri gehienek beren Diputazioari ere laguntzeko eskatzen zioten afera honetan<sup>61</sup>.

Herrietan ez ezik hiri handiagoetan ere izan zuen oihartzuna protestak. Bilboko udalean, adibidez, otsailaren 10ean aurkeztu zuten protesta-mozioa zinegotzi jeltzaleek. Udaleko gehiengo errepublikazale-sozialistak, ordea, atzera bota zuen, tartean euskararen kontura txantxa batzuk eginez<sup>62</sup>. Barakaldon ere aurkeztu zuten protesta-mozio bat jeltzaleek, baina han ere gutxigatik, 8-7 botoko aldeaz, atzera bota zen<sup>63</sup>. Gasteizen, berriz, udalak RAEren gutuna salatzen zuten mozioa onartu zuen, baina Arabako Diputazioari enkargatu zion protesta Espainiako gobernuari helaraztea<sup>64</sup>, eta ez dugu aurkitu Diputazioak protesta tramitatu zuenik. Donostiari dagokionez, izan zen protesta-mozio proposamenen bat, baina kasu honetan ere ez dugu aurkitu aurrera egin zuenik<sup>65</sup>. Hirietan, beraz, protestek herrietan baino ibilbide laburragoa izan zutela dirudi.

Euskal Diputazioan baita, protesta Bizkaikora iritsi zen otsailaren 10ean. Lau diputatu jeltzalek eta jaimista batek aurkeztu zuten mozioa. Aipatzekoa da, bezperan, Bilboko *La Tarde* egunkariak (jeltzaleen jabetzako egunkaria, baina lerro politiko markatu gabea), artikulua eruditu baten bidez, agerian utzi zuela gobernadoreak aipatutako legeek ez zutela zerikusirik udal-aferekin. Izatez artikulua aipatzen zuen lege horietako batek (1902-12-19ko errege-aginduak) baimendu egiten zuela gaztelania ez zekiten haurrei eskolan beren hizkuntzan hitz egitea (gaztelania ikasi bitartean)<sup>66</sup>. Aurkikuntza horrek eragina izan zuen hurrengo egunean Bizkaiko Diputazioan aurkeztutako mozioan:

*[...] Entienden los diputados recurrentes, que no hay ordenamiento legal vigente por el que el señor gobernador pueda proscribir el uso de la lengua vasca, en actos tan importantes como las sesiones que los Ayuntamientos celebran [...] y entienden, asimismo, que ni es acto oficial el de explicar al público en euzkera, en pueblos euzkeldunes, ciertos actos registrados en la lengua oficial en el libro de actas y expuestos al público en la misma lengua oficial, porque esto es potestativo en las autoridades municipales; ni constituyendo lo dicho acto oficial, puede prohibirse,*

---

59. Idatzizko bandoak elebitan egiteko asmo esplizitua agertu zuten udalak: Zeanuri, Andoain, Igorre, Mutriku, Galdakao, Areatza, Tolosa, Errenteria, Soraluze eta Zumarraga.

60. Kasu horretan zeuden Ondarroa, Zamudio, Gueñes, Hondarribia, Elantxobe, Mendexa eta Azkoitia.

61. Ikus 1916-02-08 eta 1916-02-29 bitarteko *Euzkadi* egunkariak udal bakoitzeko erabakien xehetasunekin.

62. Cf. "A latigazos", *Euzkadi*, 1916-02-13.

63. Cf. "Pro-euzkera. La protesta de los Ayuntamientos", *Euzkadi*, 1916-02-15.

64. Cf. "Ondarroa y Gasteiz por el euzkera", *Euzkadi*, 1916-02-11.

65. Protesta-mozioaren testu-proposamena Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkarian azaldu zen, "La sombra de Bilinch" anonimoak sinatua, eta zinegotziei eskaintzen zitzaizen onarrez (cf. "Por la lengua vasca", *Euzkadi*, 1916-02-17). Ez dugu segidako berririk aurkitu.

66. Cf. *La Tarde*, 1916-02-09 (*Euzkadi* egunkariak oihartzuna eman zion hurrengo egunetan: "Dialecto puro", 1916-02-10 eta "Agradecidos", 1916-02-12ko artikuluen bidez).

*mientras no se funde la prohibición en alguna ley, que hasta el presente no existe. [...] por ello se ciñen á proponer:*

*Primero. Que la Excma. Diputación se dirija al señor gobernador civil en súplica de que se sirva dejar sin efecto la Circular de 3 del corriente, en cuanto prohíbe por ello los pregones euzkéricos.*

*Segundo. Que, asimismo, deje sin efecto el extremo de dicha Circular obligando á las Corporaciones á que usen en todos sus actos la lengua oficial.*

*Tercero. Que V. E. se dirija á los Ayuntamientos de pueblos en que se habla el idioma vasco, encareciéndoles la suma conveniencia de que redacten en castellano y en euzkera aquellos documentos cuya difusión es necesaria para la buena marcha de la administración, y usando el euzkera sin temor, allá donde esto sea conveniente; y*

*Que interese del señor gobernador el que á los efectos de una mayor difusión de la cultura, recabe eficazmente el uso del euzkera en las Escuelas de niños que ignoran otro idioma, según demandan á una la ley y el sentido común<sup>67</sup>.*

Testua interesgarria da, udala baino goragoko erakunde batean aurkeztu zelako, eta garaiko errebindikazioen maila erakusten duelako. Mozioak, funtsean, ordura arte herri euskaldunetan ohikoa zen elebitasun funtzionala bermatu eta zertxobait hobetu nahi zuen: batetik ahozko jardunetan euskara hutsez aritu ahal izatea babestu gura zuen (bai udal barruan, bai pregoietan, bai bestelako ekintza informaletan); bestetik idatzizkoan, hizkuntza ofiziala (gaztelania) mantenduko zela aditzera ematen zen (udal-aktetan, bandoetan); eta azkenik, berrikuntza gisa, bando idatziak gaztelania hutsez plazaratu beharrean elebitan aurkezteko gomendioa egiten zuen. Era berean eskoletan euskarari tokitxo bat egiteko eskatzen zuen (uste izatekoa da erabilera hori ahozkoari zegokiola bereziki).

Ikusten denez, ez ziren eskari oso erradikalak. Aipatzekoa da mozioak ez zuela ezer esaten Bizkaiko herri erdaldunei buruz. Haietan, adibidez Enkarterrin, ordura arte bezala, gaztelania hutsezko eredu ofiziala mantenduko zen, bai ahoz zein idatziz, bai eskolan zein udal barruan eta kanpoan. Elebitasun-proposamena, beraz, Bizkaiko herri euskaldunetara mugatuta zegoen. Gainera mozioak, gobernadorearen oinarri legal falta salatu arren, ondoren haren salaketak legeen babespean baleude bezala jokutzen zuen: mozioak hizkuntza ofizial deitzen zion gaztelaniari, eta ez zuen kuestionatzen idatzizkoan gaztelania derrigorra zenik; batez ere ahozko jardueretarako eskatzen zuen euskara libreki erabili ahal izatea, eta gainera ahozko pregoiak ez zirela ofizialak esanez argudiatzen zuen badaezpada. Hau da, mozioak beldur moduko bat azaltzen zuen gaztelaniaren ustezko ofizialtasunaren aurrean, eta tentu handiz formulatzen zituen euskararen aldeko neurriak. Hala ere, bere apalean, mozioa euskararen erabilera instituzionala babesteko aurrerapauso txiki bat izan zitekeen.

Gai-ordena kontuengatik mozioa ez zen Bizkaiko Diputazioan egun hartan eztabaidatu. Hurrengo egun baterako geratu zen. Hala ere, hurrengo egunetako prentsan ez dugu mozioaren inguruko albiste gehiagorik aurkitu. Kontuan hartu behar da jeltzaleek (eta jaimistek) ez zutela gehiengorik orduko Bizkaiko Diputazioan. Susma liteke mozioak ez zuela aurrera egin. Horrela, bada, erakundeetan hartu ziren erabaki ziur bakarrak udal-mailakoak izan ziren.

67. "En la Diputación", *Euzkadi*, 1916-02-11.

Gogoratu Katalunian, RAEren gutuna argitaratu zenean, protesta gisa hainbat udalek erabaki zutela aurrerantzean katalanez idatziko zituztela beren bandoak, beren batzar-agiriak eta gisako beste paper batzuk. Udal haiek ez zuten esaten agiriok katalanez eta gaztelaniaz egingo zituztenik, are gutxiago gaztelaniaz egin eta ondoren katalanezko itzulpen bat erantsiko zietenik ere. Katalanez idazteko asmoa agertu zuten, hots, katalan hutsez. Ematen du, gainera, haien aburuz ez zegoela eragozpen legalik horretarako. Aldiz, Euskal Herrian, udalik ausartenak, bandoen euskarazko itzulpen soil bat egitera mugatuko ziren. Hau da, Bizkaiko gobernadore zibil berak baimentzen zuen gauza bat, ez besterik. Eta konprobatzekoa litzateke xede apal hori bera noraino bete zuten praktikan (eta noiz arte).

Zalantzarik gabe katalanek, 1916. urteko altueran, beren tradizio literario sendoa tarteko, eta Institut d'Estudis-ek eskainitako estandar idatzia ere prest izanik, errazagoa zuten beren hizkuntza administrazioko behar idatzietara egokitzea. Katalanistek, gainera, ordurako katalanez idazten zituzten beren alderdien baitako paperak eta egin behar zuten bakarra eredu hori erakundeetara eramatea zen. Aldiz, euskaraz 1916. urtean ez zegoen estandar idatzirik prest, ezta literatur tradizio sendorik ere, eta jeltzaleen artean gaztelania zen alderdi barruko paperen ohiko hizkuntza (nahiz gero jakinarazpen publikoetan elebitan argitaratu). Horregatik euskara udaleko lan-tresna idatzi gisa baliatzeko proposatu ordez, mozioek itzulpenen eskari apalagoa egiten zuten (alderdi jeltzalearen eredia errepikatuz). Eta hori hala egin zen tokietan. Zeren Bizkaiko eta Gipuzkoako udal gehien-gehinek ez zuten ezer erabaki kontu honetaz.

Argi dago Bizkaiko gobernadore zibilak euskara bigarren edo hirugarren maila batera baztertu nahi zuela, baita ordura arte usadiozkoa izan zen ahozko eremuetatik ere. Baina aldi berean, afera honek argi erakusten du euskararen aldeko mugimendua zeinen ahula zen: bando idatziak elebitan jartzeko aukera xumea ere ez zen bere hedadura osoan ustiatu. Ezta gobernadorearen aurka protesta egin zuten udalerrri orotan ere. Izatez deigarria da jeltzaleek gobernadorearen polemika behar izatea bando elebidunen proposamena aurkezteko. Garai bereko katalanistek, kanpoko erasoan zain egon gabe, berenez ekin zioten katalana erakundeetan sartzeari, bai ahoz eta bai idatziz. Jeltzaleen ekimen apala orduko dinamika euskaltzale xumearen isla zen hein handiz. Izan ere, XX. mende hasierako euskarazko kultur ekoizpena (zientzia-arloko idazkiena, adibidez), edo oso dibulgaltiboa zen (sarrienik helburu praktikoz egindako erdal testuen itzulpen-laburpena) edo asmo nagusiki sinbolikoz egindakoa (gai konplexu bat euskaraz emanez, soil-soilik hizkuntza gai zela frogatzearren). Logika bertsuan kokatzen zen idatzizko bandoak euskaratzeko asmoa ere, dibulgazioaren eta ekintza sinbolikoaren artean<sup>68</sup>.

Protesta-mozioek, bada, indarrak handiena ahozko erabileran egin zuten, arlo praktikoenean. Arrazoi soziolinguistikoez ere ahozko aukera horren arrakasta lagundu zezaketen. Adierazgarria da protesta egin zuen udaletako batek, Mendexako udalak, luzatu zion galdera zirikaria gobernadoreari: herrian gaztelania ondo zekiten bakarrak apaiza, medikua eta idazkaria izanik, eta, aldiz zinegotziak, pre-

---

68. Gerraurreko euskarazko kulturgintza jasoaz, eta haren motibazio praktiko eta sinbolikoen aferaz cf. Artetxe (2013).

goilaria eta populazio orokorra euskaldun hutsak izanik, ezinezkoa zitzaiela euskara erabili gabe udal-jarduerak burutzea, eta ea zer egin behar zuten, ez baitzuten legerik hautsi nahi<sup>69</sup>. Ahozko errealitate ia elebakar horren aurrean zaila zen zirkular soil batek gauzak kolpera aldatzea.

Horrek, hala ere, ez zuen esan nahi gobernadorearen erabakiak ez zuenik inolako eraginik izan udalen ahozko jardunean. *Euzkadi*k jasotako albiste baten arabera, kazikisten eraginpean zegoen Bizkaiko herri euskaldun batean (ez zen zehazten zeinetan), alkateak, gobernadorearen zirkularrari men eginez, agindu omen zien zinegotzi guztiei aurrerantzean gaztelaniaz aritzeko. Baina zinegotzi gehienek oso gaztelania gutxi zekitenez egoera xebreak sortu omen ziren udalaren bilkuretan, mordoilo ulertezin eta isiltasunaren artekoak<sup>70</sup>. Zail da halako albiste anonimoen fidagarritasuna neurtzea, baina ezin bazter liteke zirkularrak, udalerrri batzuetan behintzat, eragin praktikoa izatea. Agian ez oso iraunkorra, baina bai gaztelaniaren alde lehendik zeuden joerak sendotu zituena. Izatez, Bizkaiko beste udalerrri batean, Leioan, alkateak zirkularra onartu beharrekoa zela esan zien zinegotziei, «*No se puede hacer nada en contra del gobernador*» argudiopean<sup>71</sup>. Azken finean, gobernadoreak, jasotako kritika guztien ondoren ere, ez zuen bere zirkularra atzera bota (guk behintzat ez dugu hori baieztatzen duen albisterik aurkitu). Hortaz, zenbait tokitan, bereziki protestarik izan ez zen udalerrri ugarietan, litekeena da zirkularrak ondorioak izatea, eta lehendik zetorren gaztelaniaren hegemonia ofiziala gehiago indartzea.

Izatez, protesta egin zuten udalerrietan bertan, gaztelaniaren aldeko joerak eragin nabarmena izaten segitu zuen. Bermeon, adibidez, udalaren protesta-mozioko puntuetako batek herriko karmeldar mojen ikastetxeari euskara klase bat sartzeko eskatzen zion. Ikastetxeak, ordea, ezezkoa eman zion eskariari. Aipatzekoa da udalak egunean ordu-erdiko euskara irakurketa klase bat baino ez zuela eskatzen, baina ikastetxea ez zegoen prest klase hori ezta bi egunik behin emateko ere<sup>72</sup>. Ikastetxearen erabakia, jakina, ez zuen gobernadorearen zirkularrak motibatu, baina sakonean ideologia linguistiko berberak inspiratzen zuen: gaztelaniaren nagusigo-ideiak.

#### 4. Polemikaren ondorena: katalana ofizial izendatzeko ahalegina

Kuriosoa da Bizkaiko gobernadore zibila, zuzenean edo zeharka RAEren gutunean inspiratu arren, bando eta pregoien kontuan zentratzea, eta ez aipatzea irakaskuntzari zegokion ezer. Oroitu RAEren gutunak arlo ofizial asko seinatu arren, batez ere hezkuntzari ematen ziola garrantzia, eta gutuna berariaz zuzendu ziola hezkuntza-ministroari. Zergatik Bizkaiko gobernadore zibilak ez zuen zirkularra aprobeztatu hezkuntza-arloko araurerik bat emateko? Arrazoia begibistakoa da: gaztelania erabat nagusi zelako Bizkaiko (eta Hego Euskal Herri osoko) hezkuntzan, bai irakaskuntza pribatuan eta bai publikoan. Izatez, ahozko erabilera batzuk kenduta (pregoia eta udalbatzako deliberazioak), esan liteke

69. Cf. "En pro del euzkera. Mendeja", *Euzkadi*, 1916-02-25.

70. Cf. "A dónde van", *Euzkadi*, 1916-02-09.

71. Cf. "Euzko abendaren elez. Lexona", *Euzkadi*, 1916-02-26.

72. Cf. "Persecución indigna", *Euzkadi*, 1916-03-04, eta hurrengo egunetako albisteak Bermeoko ikastetxeaz.

gainerako zeregin ofizial guztietan ere gaztelania jaun eta jabe zela Hego Euskal Herrian. Egoeraren erretratu egokia Resurreccion Maria Azkue apaiz euskaltzaleak eskaini zuen. 1916ko apirilaren 2an izan zen, Euskal-Esnalea kultur elkarteak Bilbon antolatu zuen hitzaldi-ziklo batean, hau da, polemika lehertu eta bi hilabetera. Azkuek esan zuenez:

Españiako Izkelzaingoak (Academiak) beraren errenkurak iragarri dabezanezkerok, geuk, besterik ezpada, geure etorkizuneko Izkelzaingoaren izenean, geure errenkura andiak eguzkiaren aurrean adierazoteko. Goyan daukaguzanak ulertu daikeguezan, euren izkeran agertuko dautset gure errenkura onen una.

“Hay centros oficiales (todos los del País Vasco) donde se prescinde en absoluto del vascence; no se exige la traducción de aquellos documentos que se presentan escritos en el idioma impuesto; los acuerdos de las Corporaciones... se redactan en igual forma, y hasta acontece que en todas las escuelas públicas, pagadas todas ellas por nuestro pueblo, está proscripta su milenaria lengua y ni siquiera se la enseña como si fuera una lengua extranjera, que es hacer perdurables y agravar males públicos [...]”<sup>73</sup>.

Azkuek RAEren gutuna euskal ikuspegitik berridatzi zuen. Eta agerian utzi zuen errealitatea zeinen gordina zen euskararentzat: RAErentzat arazoa zen Espainian bazirela zenbait eskualde (praktikan Katalunia bakarrik), non gaztelania ez zen hizkuntza ofizial guztiz hegemonikoa; aldiz Azkuerentzat arazoa zen euskara inon ere ez zela hizkuntza ofiziala, ez jada hegemonikoa, baizik ezta bigarren mailakoa ere. Gorago ikusi ditugun saioek, bandoak euskarara itzultzeko eskatuz eta eskoletan ere euskarari lekutxo bat bilatuz, nolabaiteko ofizialtasun hori lortu nahi zuten, bigarren maila batean baino ez bazen ere.

Katalanak, garai berean, praxiaren bidez pauso sendoagoak ematen ari ziren beren hizkuntzaren erabilera ofizialean. Baina haien asmoa haratago joatea zen, eta lege-babesa eskuratu nahi zuten. Horrela, 1916ko apiril hartan Espainiako hauteskunde orokorrak izan ziren, eta Lliga alderdiak oso emaitza onak izan zituen. Lligak katalanaren ofizialtasunaren gaia Madrilera eramatea erabaki zuen. Izatez Mankomunitateak ere, eskari formala egin zion Espainiako gobernuari katalana ofizial deklaratu zezan. Espainiako gobernuak presidentea, berriro ere, Romanones liberala zen. Romanonesek ez zion Mankomunitatearen eskariari erantzun, baina parlamentuan ezin izan zuen debatea saihestu<sup>74</sup>.

Lligakoak, beren bozeramale Francesc Cambó diputatu karismatikoaren eskutik, gortetara gaia atera eta Romanones presidentearen borondatea ikuskatu zuten. Debatua luzea eta gogorra izan zen. Espainiar diputatu liberal gehienek elitearen kontsentsu linguistikoa errepikatu zuten: laudorio hutsal batzuk tokiko *hizkerei* (ez beti), baina ofizial bakarra gaztelania. Romanones presidentea irekiago azaldu zen, hitzez behintzat, eta kontzesio batzuk egiteko prest ere bai, adibidez administrazio-arloan, baina katalanaren ofizialtasuna deklaratu gabe. Hezkuntzari zegokionez, aldiz, ez zen bere betiko jarreratik aldendu («*el catalán*

---

73. Azkue: “Azkue Jaunaren itzaldia”, *Euskal-Esnalea*, 1916-04-02, 107. or.

74. Espainiako Gorteetako debate honetarako Grau-ri (2004: 293-317) eta Ferrer i Gironès-i (1985: 112-133) segitzen diegu.

*puede ser empleado como medio para enseñar el castellano á aquellos que no lo sepan, pero nada más»<sup>75</sup>).*

Gobernuak epe motzean ezer argirik eskaintzen ez zuenez, alternatiba oposizioaren babesa lortzea izan zitekeen. Arrazoi ekonomikoak tarteko Lligak oso harreman onak zituen une hartan oposizio kontserbadorearekin: gobernu liberalaren baitan Alba ministroak zerga berezi bat ezarri nahi zuen gerrako irabazi ezohikoengatik eta bai Lliga eta bai espainiar kontserbadoreak zerga horren kontra ari ziren. Sintonia politikoa handia zen beraz, eta parlamentuan ohikoa zen Lligak eta kontserbadoreek elkarrekin bozkatzeari. Aipatzekoa da legegintzaldi hartako diputatu kontserbadoreen artean Antonio Maura ere bazegoela. Eta Maurak ez zuen aukera galdu katalanaren ofizialtasunaz bere iritzia emateko.

Maura, Romanonesen antzera, kortesiaz mintzatu zen, esanez inor ez zegoela katalanaren kontra, eta denek onartzen zutela katalana hizkuntza familiarra eta literarioa izatea, baina ofizialtasuna ezin eska zitekeela. Izatez Maurak RAEn gutuna ere aipatu zuen, bertan eskatzen zen bakarria legeak betetzeko zela esanez eta hor ez zegoela katalanaren aurkako erasorik. Ikusten denez, inolako zalantzarik geratzen bazen, Maurak guztiz bat egiten zuen RAEn gutunarekin. Cambó-k argi erantzun zion: «*Hablar del respeto al idioma catalán como idioma de expansiones íntimas para la familia, para la poesía, para el hogar, es para nosotros, Sr. Maura, una ofensa*»<sup>76</sup>. Lligak ofizialtasuna nahi zuen, eta historian aurrenekoz, ofizialtasun hori lortzeko lege-proposamen konkretu bat aurkeztu zuen Espainiako Kongresuan:

*Los Diputados que suscriben tienen la honra de someter al Congreso la siguiente proposición incidental:*

*El Congreso declara que considera de alto interés patriótico que el Gobierno presente un proyecto de ley estableciendo:*

*1.º El libre uso de la lengua catalana en el territorio de Cataluña:*

*A) En las corporaciones públicas*

*B) En los Tribunales de justicia.*

*C) En la enseñanza.*

*2.º La obligación, por parte de autoridades y funcionarios llamados á ejercer en el territorio de Cataluña las funciones relacionadas en el número anterior, de acreditar, antes de tomar posesión de sus cargos, el conocimiento de la lengua catalana para comprenderla así hablada como escrita.*

*3.º La autorización al Gobierno para aplicar estas reglas á los demás territorios que se encuentren en situación análoga y lo pidan sus corporaciones.*

*Palacio del Congreso 8 de julio de 1916<sup>77</sup>.*

---

75. Aipatua in Grau (2004: 301).

76. Aipatua in Grau (2004: 305).

77. Aipatua in Grau (2004: 309-310).

Cambó-k kongresuko debatean argitu zuenez, beren lege proposamena ataletan banatu zuten, Espainiako gobernua atal guztiak onartu nahi ez bazituen batzuk behintzat onartzeko aukera izan zezan. Eta gehitu zuen beren eskaera ez zela katalana Kataluniako hizkuntza ofizial bakarra bihurtzea, baizik gaztelania-rekin batera koofizial izendatzea. Bai Romanonesek eta bai Maurak erantzun zioten ez zela unerik egokiena lege-proposamena aurkezteko, eta ofizialtasunaren gaia ezin ebatz zitekeela bozketa bakarrean. Aitzitik gaia lasai eta denboraz aztertu beharra zegoela esan zioten. Cambó prest azaldu zen lege-proposamena erretiratzeko, baldin eta alderdi nagusiek konpromisoa hartzen bazuten uda ondoren katalanaren ofizialtasunaren gaia parlamentuan lantzeko eta konpontzeko. Ez zuen erantzun argirik jaso eta Lligak eutsi egin zion bere lege-proposamenari. Uztailaren 8an bertan bozkatu zen.

Diputatu kontserbadore gehien-gehienek, Lliga auzi ekonomikoan aliatu garrantzitsutzat zuten, ez zuten haren lege-proposamenaren aurka bozkatu nahi izan. Baina ezta alde ere. Eta hemiziklotik atera ziren bozketaren unean, baita diputatu katalan liberal batzuk ere. Diputatu liberal gehienek, berriz, lege-proposamenaren kontra bozkatu zuten. Emaizta 121 bozka kontra eta 13 alde izan ziren.

Alde bozkatu zutenen artean Lligaren 7 diputatuak zeuden, baita beste 3 diputatu katalanista ezkertiar ere, jaimista katalan bat, valentziar bat, eta euskal ordezkari bat, Acillona (Markinako diputatu foruzale-katoliko independentea). Une hartan jeltzaleek ez zuten ordezkariarik Espainiako parlamentuan (lehen diputatuak 1918an lortu zituzten). Acillona, eskola zaharreko jauntxo bat zen, bere interesen alde egiten zuena, baina ideologikoki jeltzaleengandik gertu zebilen. Izatez alderdi jeltzaleak, modu ofizialean ere, EBBk sinatutako telegrama publiko baten bidez, atxikimendua agertzen zion Lligaren ekimenari: «*Nuevamente este Consejo Supremo del Partido Nacionalista Vasco, felicita á usted [Cambó] por la proposición presentada pidiendo oficialidad idiomas nacionalidades, censurando severamente diputados vascos que no hayan apoyado*»<sup>78</sup>.

Telegramako azken oharra ez zen doakoa, Acillonaz gain beste euskal diputatu batzuk ere izan baitziren Espainiako parlamentuan, baina haietako inork ez zuen babestu Lligaren proposamena. Babestu ez zuten horien artean Euskal Herritik zein Espainiatik aukeratutako jaimista eta integrista ugari zegoen, aldika tokian tokiko hizkuntzen alde hitz egiten zutenak. Baina ofizialtasunaren inguruko lege zehatz bat bozkatzeko ordua iritsi zenean, hemiziklotik atera ziren.

Horrela, katalana (eta beste hizkuntza batzuk) Espainiako parlamentuak ofizial deklaratzeko aukera bertan behera geratu zen. Lligak hurrengo urteetan ez zuen gaia berriro atera. Ofizialtasun legala lortzea ezinezkoa ikusita, *de facto*-ko bideari eutsi zioten Mankomunitatean eta katalanisten kontrolpeko beste erakunde publikoetan. Espainiako alderdi nagusiek lege-mailan galarazi zezaketen katalana ofizial izendatzea, baina joko alderdikoiak eta aliantza-beharrak tarteko nekezagoa zitzairen Kataluniako eremu batzuetan indarrean zegoen ofizialtasun faktikoa galaraztea. Eta horrela ofizialtasunaren gaia legez ebatzi gabe amaitu zen Erres-taurazioa.

---

78. "Telegrama á Cambó", *Euzkadi*, 1916-07-10.



## 5. Ondorioak

XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran Espainiako estatuak ez zeukan legeria garaturik gaztelaniaren ofizialtasun eksklusiboa aldarrikatuz. Izan baziren gaztelania eskatzen zuten lege bakan batzuk, baina gutxi eta ez oso kategorikoak. Alde horretatik, gerta zitekeen estatua tolerantea izatea hizkuntzen erabilerari zegokionez. Baina katalanistak azaldu zirenean, beren hizkuntza eremu ofizialetan sartzeko saioekin, estatuko eliteek aurkako erreakzio bortitza izan zuten. Ordura arte, gaztelaniaren hegemonia modu inplizituan bultzatu zen, aldarrikapen handien eta lege argien beharrik gabe. Modu geldo baina konstantean. Katalanisten agerrerak, ordea, adierazpen esplizituen beharra ekarri zuen. Eta adierazpen horietako bi artikulu honetan aztertu ditugu: RAEren 1916. urteko gutuna (1) eta urte bereko Bizkaiko gobernadore zibilaren zirkularra (2). Testu bi horiek ia guztiz ezezagunak izan dira euskal historiografian.

- 1) RAE (Real Academia Española) goi-mailako erakunde akademiko bat zen, eta bertan ederki ordezkaturik zeuden Espainiako elite politiko-kultural prestigio-tsuenak, bai aurrerakoiak, bai kontserbadoreak, bai alderdietatik kanpokoak. Elite horrek, zatiketa ideologikoen gaineratik, ez zuen arazorik izan aho batez onartzeko hizkuntzen erabilera publikoari buruzko gutun bat. Era horretara espainiar eliteen sakoneko kontsentsu bat azaldu zuen. Kontsentsu horren arabera gaztelania zen espainiar estatuaren hizkuntza ofizial eta nazional bakarra, estatuaren lurralde osoan zabaldu beharrekoa, eta administrazioan eta hezkuntzan ezin onar zitekeen besterik; gainerako hizkuntzak, dialektoen pareko *hizkera* gisa tratatzen ziren, eta funtzio mar-jinalak baino ez zitzaizkien aitortzen, nahiz erretorikoki Espainiako aberastasunaren parte zirela esan. RAEren gutunak, eskema hierarkiko hori berrestearekin batera, estatuari aktiboago bermatzeko eskatzen zion. Gutuna laster Madrileko prentsan zabaldu zen eta katalanistek gogor kritikatu zuten.
- 2) Euskal Herrian ez zegoen Katalunian moduko ekimen indartsurik euskara eremu ofizialetan erabiltzeko. Baina aski izan zen Bizkaiko herritxo batean, Mundakan, ahozko pregoietan euskara erabiltzea gobernadore zibilak, ustezko salaketa anonimo batean oinarrituz, gaztelania erabili beharra exijitzeko. Izatez, gobernadoreak, RAEren gutunean inspiratuz, Bizkai osorako zirkular orokor bat egin zuen, udalerrri guztiei aginduz jarduera ofizialetan gaztelania erabiltzeko. Gobernadoreak, RAEren gutunak bezala, legeak bete beharra aipatzen zuen agindua justifikatzeko. Baina egiazki ez zegoen gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen zuen legerik. Alta gizartean eta erakundeetan hain zegoen barneratuta espainiar nazio-estaturen hizkuntza ofiziala gaztelania zela, ezen denek eman baitzuten ontzat argudio legala. Laster, oinarri juridikoaren kamustasunaz ohartu ziren euskararen aldeko indarrak, baina orduan ere ez ziren ausartu gaztelaniaren ofizialtasun faktikoa aurrez aurre kuestionatzera. Horren ordezt zeharkako bideak baliatu zituzten euskararen erabilera esparru instituzional batzuetan eskatzeko.

Gobernadore zibilaren aginduak Bizkaiko prentsan ere polemika sortu zuen. Hiru jarrera nagusi azaleratu ziren. Jeltzaleen egunkariak, *Euzkadik*, argi salatu zuen gobernadorearen zirkularra, eta ordezkari jeltzaleek mobilizazio- eta protesta-kanpaina sendoa abiatu zuten, bereziki udaletan. *El Liberal* egunkari

errepublikazale-sozialistak, berriz, bat egin zuen gobernadorearen zirkularrekin. Beste egunkariak erdibidean kokatu ziren (*La Gaceta del Norte*, *El Pueblo Vasco* eta *El Noticiero Bilbaino*), gobernadoreari kritika batzuk eginez, baina hein handiz gaztelaniaren inguruko kontsentsua onartuz. Jaimistek ere azken bide horretatik jo zuten, aldika jeltzaleak babestuz, baina orokorrean euskararen aldeko neurri sendorik bultzatu gabe.

Joko alderdikoiak ere presente egon ziren eztabaida hartan. Horrek eragin zuen gobernadoreak ez eskuratzea babes zabalagoa Bizkaian. Era berean RAEren gutunak ez zuen lortu Espainiako gobernuaren inplikazio guztiz aktiborik. Izan ere, Errestaurazioko eredu politikoan, espainiar ikuspegiko alderdi guztiek gaztelaniaren hegemonia ofiziala bultzatzen bazuten ere, lehia alderdikoiak tarteko, edota gobernagarritasun-arazoak tarteko, beti ezin zuten gaztelaniaren aldeko politika erasokorrik burutu (nahiz aldika errepresio-neurriak hartu). Izatez, batzuetan, periferiako nazionalisten aurrean kontzesio txikiak egin beharrean egoten ziren. Edonola ere, arazoa serioski konpontzeari uko egiten zioten, eta inondik ere ez zuten onartzen beste hizkuntza batzuei ofizialtasun legala aitortzerik.

1916. urteko polemikak euskararen errealitate instituzionala ere azaleratu zuen. Ordura arte, herri euskaldun askotan udalek nolabaiteko elebitasun funtzionala baliatzen zuten: ahozko jardueretan ohikoa zen euskara erabiltzea (batzarretan eta pregoietan), baina idatzizkoan gaztelania zen jaun eta jabe (barne-agirietan, bando idatzietan, etab). Bizkaiko gobernadoreak ahozko erabileran ere gaztelania sartu nahi izan zuenean, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udalek protesta egin zuten. Protesta horietan, gaztelaniaren idatzizko erabilera ofiziala ukitu gabe, ahozko jarduera instituzionaletan euskara mantentzeko ahaleginak egin zituzten, horiek erabilera informalak zirela argudiatuta. Izatez, hamar udalek herritarrei zuzendutako bando idatzia ere elebitan plazaratzeko asmoa agertu zuten. Euskararen erabilera publikoan aurrerapen bat bazen ere, katalanisten lorpenen oso azpitik geratu zen: Kataluniako udal eta erakundeetan ahozko pregoi eta batzarrak ez ezik, idatzizko bandoak eta barne-agiriak ere katalan hutsez idazteari ekin zioten garai hartan. Bizkaiko gobernadorearen aurkako protesten haritik euskara hezkuntzan sartzeko saio xume batzuk ere egin ziren, baina emaitza urriz.

## Bibliografia

- Agirreazkuenaga, J. (2003a): "Euskararen aldeko ideologia nagusiak, hiztunak eta eragileak: herri hizkeratik goren graduzkorantz, 1801-2001", in AA, *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 145-167.
- , (2003b): "Arana Mendivil, Mario", in J. Agirreazkuenaga (zuz.), *Bilbao desde sus alcaldes. Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución democrática y social*, II. bol., Bilboko Udala, Bilbo, 1.902-1.937.
- Aizpuru, M. (2000): *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923)*, EHU, Bilbo.
- Artetxe, K. (2013): *Einsten Euzkadin. Gerraurreko zientzia eta goi mailako kultura euskaraz*, Utrisque Vasconiae, Donostia.
- Azurmendi, J. (1992): *Espainolak eta euskaldunak*, Elkar, Donostia.
- De Pablo, S. et al. (1999): *El péndulo patriótico, Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*, Crítica, Bartzelona.

- Ferrer i Gironès, F. (1985): *La persecució política de la llengua catalana*, Edicions 62, Bartzelona.
- Gartzia, P. (2004): *La España metafísica. Lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Iker 16, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Grau Mateu, J. (2004): *La Lliga Regionalista i la llengua catalana, 1901-1923*, doktorego-tesia (zuz.: Dr. Josep Termes Ardèvol), Institut Universitari d'Història Jaume Vicens i Vives, Universitat Pompeu Fabra, Bartzelona, sarean: <<http://www.tesisexarxa.net/TDX-0513104-103850/index.html>>.
- Grau Mateu, J. (2006): *La Lliga Regionalista i la llengua catalana (1901-1924)*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Bartzelona.
- Kintana Goiriena, J. (2005): "Euskarazko prentsaren hasiera eta garapena Bilbon (1815-1937)", *Bidebarrieta*, **XVI**, 139-169.
- , (2008): *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Lapeskera, R. (1996): *De aquellos barros... Prensa navarra y nacionalidad vasca*, Txalaparta, Tafalla.
- Lodares, J. R. (2000): *El paraíso políglota. Historias de lenguas en la España moderna contadas sin prejuicios*, Taurus, Madril.
- Mitxelena, S. (1958): *Unamuno ta abendats: bilbo'tar filosofuaren eta euskal-anima'ren jokerei antzemate batzuk*, Imp. Darracq, Baiona.
- Mees, L. (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.
- Narbaiza, A. (2004): *Euskaria show*, Alberdania, Irun.
- Real Academia Española (1916): "Acuerdos y noticias", *Boletín de la Real Academia Española*, Año III, Tomo III, 133-137.
- Senz, S. (2011): "Una, Grande y (esencialmente) uniforme. La RAE en la conformación y expansión de la 'lengua común' ", in S. Senz eta M. Albete (ed.), *El dardo en la Academia*, II. bol., Melusina, Bartzelona, 9-302.
- Torrealdai, J. M. (1998): *El libro negro del euskera*, Ttartalo, Donostia.
- Yeste, E. (2011): *Revisionisme històric i negacionisme. La persecució política de la llengua catalana (1874-2011)*, doktorego-tesia (zuz.), Universitat Ramon Llull, Bartzelona, sarean: <<http://hdl.handle.net/10803/32014>>.
- Ugalde, M. (1979): *Unamuno y el vascuence*, Ediciones Vascas, Donostia.
- Vázquez Souza, E. (1997): *Ánxel Casal (1895-1936). Biografía no seu contexto cultural, político e empresarial*, doktorego tesia (zuz.: Xosé María Dobarro), Universidade da Coruña, Coruña, sarean: <<http://hdl.handle.net/10803/32014>>.
- Zabaleta Imaz, I. (2000): *Nazioa eta hezkuntza sistema espainiarraren sorrera*, UEU, Bilbo.
- Zalbide, M. (2003): "Hendaia-Hondarrietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu", in AA, *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1-134.
- Zamora, A. (1999): *Historia de la Real Academia Española*, Espasa Calpe, Madril.
- Zuberogoitia, A. eta Zuberogoitia, P. (2008): *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilboko Udala, Bilbo.

